Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Foru-arau honen aurreproiektua: Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituena.

Anteproyecto de Norma Foral por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia.

Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzen dio foru-arau honen aurreproiektua onartzeko: Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituena

La diputada foral de Hacienda y Finanzas propone a la Diputación Foral de Bizkaia la aprobación del Anteproyecto de Norma Foral por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia.

Ogasun eta Finantzen foru-diputatua
La diputada foral de Hacienda y Finanzas
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

FORU ARAUAREN PROIEKTUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituena.

PROYECTO DE NORMA FORAL por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren 2014ko eta 2018ko erreformen ebaluazio-txostenek, hurrenez hurren, zeinak Bizkaiko Batzar Nagusietan 2024ko urtarrilaren 15ean aurkeztu baitziren, agerian utzi zuten bi zerga horien bereizgarriak diren printzipioak finkatu direla Bizkaiko lurraldeko zerga-sisteman, eta zalantza barik berretsi zuten oinarri sendoa direla egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko fiskalitatearen ikuspegitik.

Los informes de evaluación de las reformas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades de 2014 y 2018, respectivamente, presentados en la Juntas Generales de Bizkaia el 15 de enero de 2024, pusieron de manifiesto la consolidación de los principios que caracterizan a ambos impuestos en el sistema tributario de Bizkaia y confirmaron que constituyen una base sólida para afrontar retos presentes y futuros desde la fiscalidad.

Era berean, txosten horiek egiaztatu zuten arestian aipaturiko bi zerga-tresnek berebiziko garrantzia dutela Euskadiko erakunde-maila guztien eskumeneko zerbitzu publikoak hornitzen dituen finantza-nahikotasunaren printzipioa bermatzeko.

Asimismo, estos informes constataron la relevancia de ambas figuras tributarias en su actual configuración para la garantía del principio de suficiencia financiera para la provisión de los distintos servicios públicos competencia de los diferentes niveles institucionales de Euskadi.

Zehatzago esanda, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari gagozkiola, erreformek lagundu egin dute ekitatearen eta gehikortasun edo progresibitatearen printzipioak indartzen eta zerga-sistemaren barruan duten birbanaketa-funtzioa areagotzen. Sozietateen gaineko zergari doakionez, ordea, erregulazio berriak lagundu egin du enpresa-jarduera suspertzen, enpresa-

Concretamente, en relación con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, las reformas han contribuido a reforzar los principios de equidad, progresividad y a intensificar su función redistributiva dentro del sistema tributario. En cuanto al Impuesto sobre Sociedades, la nueva regulación ha contribuido a la reactivación de la actividad empresarial, al fortalecimiento del tejido empresarial y a la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sarea indartzen eta Lurralde Historikoko enpresen lehiakortasuna bultzatzen; horren haritik, aberastasuna ekartzeko eta enplegua sortzeko eragingailu bihurtu da.

Aurrekari horien gainean datza zerga-berrikuspena, zeinari ekin baitzaio honako foru arau hau lantzeaz batera: arestian aipatu eta Bizkaiko zergapetze pertsonala bereizgarri duten printzipioak nabarmendu dira berrikuspen horretan, eta bestetik, Euskadiko politika publikoen helburuak lortzen ahalbidetzen duen fiskalitatearen diseinuan sakondu dugu, betiere arreta berezia jarrita finantza publikoen nahikotasunaren eta fiskalitateak hazkunde ekonomikoari egiten dion ekarpenaren arteko oreka egokia bermatzeko beharrari, eta ez soilik gure lurraldeko zerga-sistemako bi tributu pertsonal nagusiez denaz bezainbatean, baita ere lehen aipatutako printzipioak zerga-sistema osoan finkatzeko beharrezko aldaketak ere aintzat hartuta, bai eta tokiko zergetan.

2023-2027 aldiko «Bizkaia Denontzat» deritzon Agintaldiko Plana betetzeko, asmoa da foru arau honetan jasotako arauketak balio dezala, kalitatezko zerbitzu publikoak finantzatzeko diru-sarrerak lortzeko ez ezik, katalizatzaile gisa eragiteko, eta, hala, herritarrek gaur egun jasaten ari diren eraldaketa sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan diezaieten; horretarako, Nazio Batuen

competitividad de las empresas del Territorio Histórico, convirtiéndose en palanca para la generación de riqueza y la creación de empleo.

Sobre estos antecedentes se asienta la revisión fiscal que se acomete con la elaboración de la presente Norma Foral, acentuando los principios mencionados, que caracterizan la imposición personal en Bizkaia, y profundizando en el diseño de una fiscalidad que coadyuve al logro de los objetivos de las políticas públicas en Euskadi, con especial atención a la necesidad de garantizar el adecuado equilibrio entre la suficiencia de las finanzas públicas y la contribución de la fiscalidad al crecimiento económico, no solo en los dos principales tributos personales del sistema tributario de nuestro Territorio, incluyendo las modificaciones necesarias para asentar los principios anteriormente mencionados en la totalidad del sistema tributario, imposición local incluida.

En cumplimiento del Plan de Mandato 2023-2027 "Bizkaia Denontzat, se pretende que la regulación acometida en la presente Norma Foral, además de servir para procurar ingresos que financien servicios públicos de calidad, juegue como catalizador para posibilitar que la ciudadanía afronte las transformaciones sociales y económicas que se están experimentando en la actualidad, incorporando

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2030 Agendako Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat datozen neurriak txertatu dira eta gure ehun ekonomikoari hazten laguntzen zaio.

Bizkaia gizarte irekia da, eta, beraz, eraldaketa biziki azkarrean dabilen munduaren erronka handiek eragina dute haren lurraldean.

Hasteko eta bat, biztanleriaren zahartzeari aurre egin behar zaio, aintzat harturik zahartzea egoera oso onuragarri baten zioz gertatzen ari dela, hau da, biztanleriaren osasun-baldintzen eta bizi-itxaropenaren gorakadaren zioz, baina jaiotza-tasaren beherakada izugarriaren ondorioz ere bai.

Era berean, jarduera ekonomikoen eta lehiakortasun-oinarrien eraldaketa bultzatzen jarraitu behar dugu, hau da, lehendik dauden gaitasunei lotutako dibertsifikazioa bultzatu behar da, bai eta berrikuntza ere ikuspegi orokor batetik, eskaria funtsezko elementu gisa txertatuz, jarduera ekonomiko berriak sortuz eta trantsizio energetiko-klimatikoak, teknologiko-digitalak eta soziodemografikoak dakartzaten sinergiak aprobetxatuz.

Beste alde batetik, esan barik doa larrialdi klimatikoaren eraginpean bizi garela, eta horrek gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduak aldatzera behartu gaituela, jasangarriagoak izan

medidas alineadas con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030 de las Naciones Unidas y contribuyendo al crecimiento de nuestro tejido económico.

Bizkaia es una sociedad abierta, y como tal, inciden en su territorio los grandes retos de un mundo que se encuentra en un proceso de transformación acelerada.

En primer lugar, se debe afrontar el envejecimiento poblacional que se produce como consecuencia de una situación muy positiva, como es el aumento de las condiciones de salud y esperanza de vida de la población, pero también de un drástico descenso de la natalidad.

Asimismo, se debe seguir impulsando una transformación de las actividades económicas y de las bases de competitividad, esto es, la diversificación relacionada con las capacidades existentes, así como la innovación desde una perspectiva integral, incorporando la demanda como elemento clave, generando nuevas actividades económicas y aprovechando las sinergias que plantean la transición energético-climática, tecnológico-digital y sociodemográfica.

Por otra parte, vivimos en una situación de emergencia climática que nos obliga a cambiar nuestros modelos de producción y de consumo para hacerlos más sostenibles. En concreto,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

daitezen. Zehazki, gizarte gisa dugun energia-eraginkortasuna hobetu behar dugu, eta energia garbiak eta berriztagarriak ekoitzi eta kontsumitu behar ditugu. Ildo horretan, beharrezkoa da hainbat sektoretan, hala nola industrian edo garraioan, deskarbonizazioa bultzatzea modu eraginkor eta ordenatuan, eta eskaria kontsumo-eredu jasangarrietarantz bideratzea.

necesitamos mejorar nuestra eficiencia energética como sociedad y producir y consumir energías limpias y renovables. En este sentido, es necesario impulsar de manera efectiva y ordenada el proceso de descarbonización de sectores como la industria o el transporte, y redireccionar la demanda hacia patrones de consumo sostenibles.

Nolanahi ere den, Bizkaiak aurre egin beharko dien erronka eta trantsizio handiek desberdintasunak areagotu ditzakete, bereziki, trantsizio horien eta horien automatizazioaren eragin kaltegarriena jasaten duten gizataldeetan. Beraz, esandakoaren ondorioak aurreikusita, estrategia eta politika jakinak abian jarri behar dira lurraldean, Bizkaian bizi diren pertsona guztien ahalduntzea, gizarteratzea eta kohesioa bermatzeko. Hau da, pertsona bera eta haren beharrak izan behar dira zerga-berrikuspenaren ardatz nagusia, betiere arreta berezia jarrita gazteengan eta kalteberatasun-egoeran bizi diren pertsonengan.

Sin embargo, los grandes retos y transiciones que deberá afrontar Bizkaia pueden conducir a una acentuación de la desigualdad, especialmente en aquellos colectivos que se vean más negativamente afectados por dichas transiciones y su automatización. Resulta necesario, entonces, poner en marcha estrategias y políticas que, previendo esto, permitan garantizar el empoderamiento, la inclusión y la cohesión de todas las personas que viven en Bizkaia. Esto es, colocar a la persona y sus necesidades, con especial foco en los jóvenes y personas en situación de vulnerabilidad, como eje principal de la revisión fiscal.

Lehen aipatu ditugun gai guztiei fiskalitatearen ekinbidetik aurre egiteko xedez, zerga-berrikuspenerako arau-testu hau prestatu da, Euskadiko gainerako foru-erakundeekin harmonizatuta; araua 2025eko urtarrilaren 1ean hasiko da indarrean, oro har, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez

Con el objeto de hacer frente desde la fiscalidad a todas las cuestiones mencionadas anteriormente se elabora este texto normativo de revisión fiscal de manera armonizada con el resto de las instituciones forales de Euskadi y con una entrada en vigor el 1 de enero de 2025, con carácter general en el Impuesto sobre la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

edo, data horretatik aurrera hasten diren zergaldietan, sozietateen gaineko zergari dagokionez.

Aurrekoa finkatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema bidezko sistema solidarioa eta birbanatzailea izatea indartzeko hartu den konpromisoa betetze aldera, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen kalitatea ziurtatzeko bilketaren nahikotasuna bermatuta eta ehun ekonomikoa hazten laguntzen duen sistema gisa eratuta, 19 artikulu ageri dira foru-arau honetan, tituluka multzokatuta, bete nahi diren erronken arabera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemako hainbat tributuri eragiten die.

Erronka horiek gure lurraldean sortzen ari diren gizarte-premia batzuekin lerrotuta daude eta honako hauek dira:

1. Familia, berdintasuna, kontziliazioa, emakumea eta gazteria: pertsona eta haren beharrak dira zerga-berrikuspenaren ardatz nagusiak, 36 urtetik beherakoengan, familia ugariengan, guraso bakarreko familiengan, desgaitasun edo mendekotasuna duten pertsonengan, bai eta etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktimengan arreta berezia jarrita, eta era horretan, zerga-sistemaren barruan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ekitatearen,

Renta de las Personas Físicas o para los periodos impositivos que se inicien a partir de dicha fecha en el Impuesto sobre Sociedades.

Sentado lo anterior, y para dar cumplimiento al compromiso adquirido de reforzar el sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia como sistema solidario, equitativo y redistributivo, que garantiza la suficiencia de la recaudación para asegurar la calidad de los servicios públicos y que contribuye al crecimiento del tejido económico, esta Norma Foral se estructura en 19 artículos agrupados por títulos en función de los retos a los que se pretende dar cumplimiento, afectando a diferentes tributos del sistema impositivo del Territorio Histórico de Bizkaia.

Estos retos, identificados con algunas de las necesidades sociales emergentes en nuestro Territorio, son:

1. Familia, igualdad, conciliación, mujer y juventud: la persona y sus necesidades, con especial foco en los menores de 36 años, familias numerosas, familias monoparentales, personas con discapacidad y dependencia, así como en las victimas de violencia doméstica o de género, como eje principal de la revisión fiscal, reforzando los principios de equidad, progresividad y función redistributiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gehikortasunaren eta birbanaketa-funtzioaren printzipioak indartuz.

2. Etxebizitza: fiskalitatea baliatuz, etxebizitza duina izateko eskubidea gauzatzen lagunduko dugu, bizi-aukera guztiak errespetatuz eta alokairu-araubidea indartuz.

3. Enpleguaren inguruko gizarte-aurreikuspena: fiskalitatea baliatuz, bigarren zutabea apurka-apurka finka dadin bultzatuko da, pentsio publikoen osagarri gisa, eta enplegatuaren zein enplegatzailearen erantzunkidetasuna sustatuko da.
4. Trantsizio berdea: klima-aldaketari, ekonomia zirkularrari, mugikortasun iraunkorrari eta trantsizio energetikoari lotutako ingurumen-erronkei aurre egiten lagunduko dugu.

5. Gehikortasuna: ahalmen ekonomikoa erabiliko da, zerga-karga mugatzeko elementutzat eta errenta txikienak babesteko.
6. Ekoizpen-sarea babestea eta bultzatzea: dimentsio txikiko enpresa-eragileei erreparatuko diegu.

Ezin ukatuzkoa da aurre egin beharreko eremu gehiago egon daitezkeela eta, horregatik, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021

Físicas dentro del sistema tributario.

2. Vivienda: coadyuvando desde la fiscalidad a la materialización del derecho a una vivienda digna respetando las diferentes opciones vitales y reforzando el régimen de alquiler.

3. Previsión social de empleo: impulso desde la fiscalidad al asentamiento progresivo del segundo pilar como complemento de las pensiones públicas y promoción de la corresponsabilidad del o la empleada y del o la empleadora.

4. Transición verde: contribución a afrontar los desafíos medioambientales asociados al cambio climático, a la economía circular, movilidad sostenible y la transición energética.

5. Progresividad: capacidad económica como elemento delimitador de la carga tributaria y protección a las rentas más bajas.

6. Protección e impulso del tejido productivo: con el foco en los agentes empresariales de menor dimensión.

Es innegable que pueden existir más ámbitos a los que hacer frente por lo que, de acuerdo con las previsiones contenidas en el Decreto 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dekretuak dakartzan manuen arabera, 2024ko maiatzaren 20an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko atarian, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea bete zen, ukitutako herritarrei eta eragileei arauaren balizko edukiari buruzko iritzia eskatzeko.

Lehen erronkari dagokionez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren esparruan, ulertu behar da emakumeei tratamendu berezia eman behar zaiela, babes berezia merezi duen gizataldea den aldetik. Horretarako, jarduera ekonomikoa hasten duten emakumezko zergadunentzat jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboaren gaineko murrizketa-ehunekoa 100eko 15 handitzea xedatu da. Era berean, kenkariaren ehunekoa 100eko 15era igoko da, 1.800 euroko muga ezarrita, eta 100eko 30 edo 100eko 40rainoko kenkaria baliatu ahalko da langileek enpresan parte hartzeagatik eta mikroenpresetan, enpresa txiki edo ertain sortu berrietan, enpresa berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotutako enpresetan inbertitzeagatik, hurrenez hurren.

Era berean, egungo gizartean sortuz doazen familia-unitate berriei ikusgarritasuna emate aldera, kontzeptua birmoldatu egingo da zergaren ondorioetarako, eta hauei guztiei lekua egingo zaie: guraso bakarra, adoptatzailea

procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, se dió cumplimiento en el portal de la Diputación Foral de Bizkaia el 20 de mayo de 2024 al trámite de consulta pública previa al objeto de recabar de la ciudadanía y agentes implicados su opinión sobre el potencial contenido de la Norma.

En cuanto al primero de los retos señalados, y en el ámbito del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se entiende que el colectivo de mujeres debe ser objeto de un tratamiento diferenciado merecedor de una especial protección, para lo cual se prevé un incremento al 15 por 100 del porcentaje de reducción sobre el rendimiento neto positivo de actividades económicas para las contribuyentes que inicien la actividad. Igualmente, se eleva el porcentaje de deducción hasta el 15 por 100 con el límite de 1.800 euros y hasta el 30 por 100 o 40 por 100 en las deducciones por participación de las y los trabajadores en la empresa y por inversión en microempresas, pequeñas o medianas empresas de nueva o reciente creación, innovadoras o vinculadas con la economía plateada, respectivamente.

Asimismo, y con el objeto de dar visibilidad a las nuevas unidades familiares surgidas en la sociedad actual, se reconfigura el concepto a efectos del Impuesto, dando cabida a las constituidas por una persona progenitora,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

edo abegi-hartzaileak adingabeekin batera eta ordezkapen-ahalmena duen kuradoretza ezarrita duten adinekoekin batera osatzen dituzten familia-unitateak, eta, orobat, zergadunak edo zergadunek adingabeekin batera eta ordezkapen-ahalmena duen kuradoretza ezarrita duten adinekoekin batera osatzen dituzten familia-unitateak, baldin eta haien zaintza etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren zioz esleitu bazaio.

adoptante o acogedora, junto con menores de edad y mayores sometidos a curatela representativa y las constituidas por la persona o personas contribuyentes junto con menores de edad y mayores sometidos a curatela representativa cuya custodia le haya sido atribuida por razón de violencia doméstica o de género.

Arlo horretan, berebiziko garrantzia dauka xedapen honek: legezko banantzerik bada, edo ezkontza-loturarik zein izatezko bikoterik ez bada eta horretarako ebazpen judizialik eman bada, gurasoak edo adoptatzaileak edo abegi-hartzaileak eta ekonomikoki modu esklusiboan mendekoak diren pertsona guztiek osatuko dute familia-unitatea, bi gurasoekiko mendekotasun ekonomikoa dagoela *iuris tantum* presuntzioa aintzat hartuta; hori guztia pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru arauaren 98. artikuluaren testu berrian jasota baitago.

En este ámbito cobra especial relevancia la previsión de que en caso de separación legal, ausencia de vínculo matrimonial o pareja de hecho y existencia de resolución judicial al efecto será unidad familiar la persona progenitora o la persona adoptante o acogedora y todas las personas dependientes económicamente de forma exclusiva, presumiendo *iuris tantum* que existe dependencia económica de ambos progenitores, todo ello recogido en la nueva redacción del artículo 98 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Zergaren kudeaketa erraztearren, eta, bestetik, familia-unitateen artean inolako bereizkeriarik egon ez dadin, beharrezkotzat jo da baterako zerga-ordainketagatik 4.800 euroko murrizketa bakarra ezartzea, eta, hala, aldatu egin da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru arauaren 73. artikulua.

A efectos de facilitar la gestión del tributo, y no prever discriminación alguna entre unidades familiares se ha estimado necesario establecer una única reducción por tributación conjunta de 4.800 euros, modificándose en tal sentido el artículo 73 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Beste alde batetik, nola eta norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri bihurtzea herritarren eskubidetzat eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko funtsezko baldintzatzat hartzen den, erakundeek eskubide hori bermatu behar dute, lan-arloko funtsezko araudiaren bidez ez ezik, fiskalitatearen bidez ere.

Aurrekoaren ondorioz, 83 bis artikulu berrian beste kenkari bat jaso da adingabeak eta mendetasun-maila edo desgaitasun-maila jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik. Zergaldi bakoitzeko 250 euroko kenkari horrek eskatzen du 6 urtetik beherako pertsona batekin edo gehiagorekin bizitzea, edo, bestela, % 65eko edo handik gorako desgaitasuna aitortuta du(t)en pertsona batekin edo batzuekin bizitzea edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsona batekin edo batzuekin bizitzea, edo zergadunak berak edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak mendetasun- edo desgaitasun-maila horien arteko bat aitortuta izatea. Gainera, kontratatzearen ziozko ordainketak egiten dituen zergadunetako batek Gizarte Segurantzan alta emanda egon beharko du, familia-etxe bateko enplegatzaile titular gisa, eta beharrezkoa izango da lehen aipatutako pertsonak zaindu ditzaketen pertsonek norberaren edo besteren konturako jarduera bat egitea. Kenkari hori 500 eurokoa izango da

Por otra parte, teniendo presente que conciliar la vida personal, familiar y laboral es considerado como un derecho de la ciudadanía y una condición fundamental para garantizar la igualdad entre mujeres y hombres, como tal derecho debe ser garantizado por las instituciones, no solo a través de la normativa sustantiva laboral, sino también a través de la fiscalidad.

En consecuencia, en el nuevo artículo 83 bis se introduce una nueva deducción por cuidado de menores y personas con determinado grado de dependencia o discapacidad. Dicha deducción de 250 euros por periodo impositivo exige la convivencia con una o varias personas menores de 6 años, o convivencia con una o varias personas que tengan la consideración de personas con discapacidad con un grado igual o superior al 65 % o en situación de dependencia o que el propio o la propia contribuyente o su cónyuge o pareja de hecho tengan reconocido alguno de los grados de dependencia o discapacidad señalados. Además, alguno de los o de las contribuyentes que satisfaga cantidades por la contratación deberá figurar en situación de alta en la Seguridad Social como persona empleadora titular de un hogar familiar y las personas que sean susceptibles de llevar a cabo el cuidado de las personas antes señaladas deberán realizar una actividad por cuenta propia o ajena. Esta deducción ascenderá a 500 euros cuando la persona cuidadora tenga la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zaintzailea zaintzaren profesionaltzat hartzen bada, erregelamenduz ezartzen diren betekizunen arabera.

Era berean, norberaren bizitza eta familia lan edo jarduera ekonomikoren batekin bateragarri bihurtzeko neurriak sustatzeko borondatearekin bat etorriz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru arauaren 83 ter artikulu berrian 1.200 euroko kreditu fiskala sortzea arautu da jaiotzagatiko eta legez aitortutako adingabeak zaintzeagatiko baimenak amaitzen direnetik interesduna lan-merkatura itzultzen den arte igarotzen den geldialdi edo lanari uzten zaion urte bakoitzeko, gehienez ere, eta laguntza ehuneko 50 areagotuko da erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan, eta, hori guztia zenbait baldintza betetzen badira, bai jaiotzaren edo adopzioaren aurretik lan egin edo jarduera ekonomikoa garatzeari dagokionez, bai lan-merkatura berriro itzultzeari dagokionez. Kenkari hori interesduna lan-merkatura itzultzen den ekitaldian aplikatuko da, edo hurrengo bostetan, kuota nahikorik ez badago.

Bizkaiko Foru Aldundiak egun azaleratzen ari diren familia-egoera berriak babestu eta sustatzeko daukan borondatearen adierazgarri, beharrezkotzat jo da aitatasunaren aukerak gero eta parte-hartze gogozkoagoa izatea

consideración de profesional del cuidado, en los términos que se establezcan reglamentariamente.

Asimismo, y en línea con la mencionada voluntad de incentivar las medidas de conciliación de la vida personal y familiar con el desempeño de un trabajo o actividad, en el nuevo artículo 83 ter de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se prevé la generación de un crédito fiscal de 1.200 euros por cada año de paralización o cese que transcurra desde la finalización de los permisos por nacimiento y cuidado de menor remunerados y legalmente reconocidos hasta la reincorporación al mercado laboral, incrementándose en un 50 por 100 cuando se trate de partos o adopciones múltiples, todo ello previo cumplimiento de una serie de requisitos tanto en cuanto al desempeño de un trabajo o actividad previo al nacimiento o formalización de adopción como en lo que atañe a la reincorporación al mercado laboral. Esta deducción se aplicará en el ejercicio de reincorporación al mercado laboral, o en los cinco siguientes en ausencia de cuota suficiente.

Como manifestación de la voluntad de esta Diputación Foral de dar cobertura e incentivar situaciones familiares emergentes fomentando su asentamiento, se ha estimado necesario poner el acento en la participación cada vez más

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

norberaren bizitza, familia eta lana uztartu edo bateragarri bihurtzeko funtsezko legeriak xedatzen dituen neurrietan. Horretarako, lehendik xedatuta zegoen kreditu fiskala 1.500 euroraino igoko da gizonezkoen kasuan.

Beste alde batetik, orain arte indarrean egon den araudian jasota egon ez den inguruabar bati bide emanda, non aurretikoen ziozko kenkaria ondorengoek bakarrik baliatzea izan duten aurretikoaren egoitza-gastuak ordaintzen zituztenean, 83 quater artikulu berrian beste kenkari bat arautu da desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonek egoitzetan eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko, baldin zergaduna egutegiko urte osoan egoitza batean etengabe eta modu iraunkorrean bizi bada, eta, betiere, egiaztatzen baldin bada zergaldiaren barruan egoitza horretako egonaldi-gastuak ordaintzeko zenbatekoak ordaindu dituela. Nolanahi ere, zergadunak desgaitasunagatiko edo mendetasunagatiko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen desgaitasun- edo mendekotasun-maila aitortuta izan beharko du. Era berean, legez xedatu da desgaitasuna edo mendetasuna duen pertsonaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak ere kenkaria aplikatu ahalko duela, baldin eta egoiliarraren egonaldi-gastuak ordaintzeko zenbatekoak ordaintzen baditu, beste betekizun batzuk betetzeaz gain.

activa de la figura paternal en las medidas previstas en la legislación sustantiva para la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, para lo cual el crédito fiscal previsto anteriormente se eleva a 1.500 euros cuando se trate de hombres.

Por otra parte, y dando cabida a una situación no prevista en la normativa hasta ahora vigente, en la medida en que únicamente el descendiente puede aplicar la deducción por ascendientes cuando sufraga los gastos de la residencia de su ascendiente, en el nuevo artículo 83 quater se regula una nueva deducción por gastos de personas con discapacidad o dependencia en centros residenciales cuando la o el contribuyente resida de forma continua y permanente durante todo el año natural en un centro residencial siempre que se acredite que, durante el período impositivo, ha satisfecho cantidades para sufragar los gastos de estancia en dicho centro residencial. La o el contribuyente deberá tener reconocido un grado de discapacidad o dependencia que genere el derecho a la aplicación de la deducción por discapacidad o dependencia, previéndose igualmente que esta deducción pueda ser aplicada por la o el cónyuge o pareja de hecho de la persona con discapacidad o dependencia siempre que satisfaga cantidades para sufragar los gastos de estancia de la persona residente, entre otros

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

requisitos.

Pertsona fisikoen zerga-ordainketa pertsonalean islatu diren neurri horiek, kontziliazioa sustatzekoak, osatu egin dira pertsona juridikoen zerga-eremuan, sozietateen gaineko zergaren foru arauaren 66 sexies artikulu berria dela medio. Artikulu horrek kenkari berritzailea arautzen du, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko neurri berriak ezartzen baititu, baina beharrezkoa izango da norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri bihurtzeko neurri berriak zergadunaren Kontziliazio Planean jasota egon daitezen, lege-esparruan nahitaez bete beharreko gutxienekoak gaindi ditzaten eta langile guztientzat eskuragarri egon daitezen. Enpresek esparru horretan apurka-apurka egiten duten ahalegina saritzeko, bi zenbateko xedatu dira kenkarietan: bata kuota likidoaren ehuneko 5ekoa, 5.000 euroko muga ezarrita, aipatu den artikuluan bertan araututako neurriren bat jasotzen duen Kontziliazio Plana ezartzeko ekitaldian, eta bestea handiagoa, 100eko 15ekoa, 7.500 euroko muga ezarrita, lehen ekitaldian, gutxienez plantillaren herena arestian esandako neurriren bati atxikita baldin badago.

Las anteriores medidas de fomento de conciliación plasmadas en la tributación personal de las personas físicas, se complementa en el ámbito impositivo de las personas jurídicas, con el nuevo artículo 66 sexies de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, que prevé una novedosa deducción por la implantación de nuevas medidas de conciliación de la vida personal, familiar y laboral, siendo necesario que las nuevas medidas en materia de conciliación de la vida personal, familiar y laboral se encuentren recogidas en el Plan de Conciliación del contribuyente, superen los mínimos de obligado cumplimiento establecidos en el marco legal y se encuentren disponibles para todas las personas trabajadoras. Con el objeto de premiar un esfuerzo progresivo de las empresas en este ámbito se prevén dos cuantías de deducción, una del 5 por 100 de la cuota líquida con el límite de 5.000 euros en el ejercicio de implantación de un Plan de Conciliación que contenga alguna de las medidas previstas en el propio artículo y otra superior, del 15 por 100, con el límite de 7.500 euros, en el primer ejercicio en el que al menos un tercio de la plantilla se encuentre acogida a alguna de las medidas señaladas.

Gure enpresa-ehunaren berezitasunak kontuan hartuta, aurreko kenkariak erregelamendu

Las deducciones anteriores, teniendo en cuenta las peculiaridades de nuestro tejido

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bidez modulatu ahal izango dira, eta tratamendu hobeak xedatu ahalko dira entitatearen tamainaren arabera.

Familia, lana eta norberaren bizitza bateragarri egiteko esparruan, gogoan izan behar dugu nola telelanean aritzeko aukerak –urrutitik lan egiteko erak gora egin du enpresa-antolaketa tradizionalaren aldean, eta horrek, zalantzarik gabe, jardunbide berritzaileak eta malguagoak ekarri ditu halabeharrez– antolamendu-aldaketak sustatu dituen enpresetan eta nola langileen prestakuntza eta enplegagarritasuna indartu dituen. Hala eta guztiz ere, eragozpen batzuk ere sorrarazi ditu, hala nola ekoizpen-jardueraren kostu batzuk langileari egoztea, inolako konpentsaziorik eman gabe. Horregatik, legeria substantiboak arautu duenez, enpresak berak ordaindu edo konpentsatu beharko du urrutiko lana, eta langileak ezin izango ditu bere gain hartu laneko jarduerari lotutako ekipo, tresna eta baliabideei lotutako gastuak. Ildo horretan, alde batetik, tratamendu bat arautzen da lanaren ordainsari gisa langileari ematen zaizkion diru-zenbatekoentzat, hitzarmen kolektiboan itundutako kopuruetatik gorakoentzat (edo, hala badagokio, merkatu-balioa gainditzen duen kopuruentzat), eta, bestetik, arautu da ez dela inola ere lanaren gauzazko ordainketatzat hartuko enplegatzaileak langileen laneko jarduerari lotutako ekipoak, tresnak eta bitartekoak ematea telelaneko edo urruneko lan-

empresarial, podrán ser moduladas vía reglamentaria previendo tratamientos más favorables en función del tamaño de la entidad.

En el ámbito de la conciliación debemos recordar que la figura del teletrabajo, como forma de trabajo a distancia ha cogido auge frente a la organización empresarial tradicional, lo que sin duda trae consigo prácticas novedosas y más flexibles, estimula cambios organizativos en las empresas y fortalece la formación y empleabilidad de las personas trabajadoras. Sin embargo, también presenta posibles inconvenientes como el traslado a la persona trabajadora de costes de la actividad productiva sin compensación alguna, entre otros. Por ello, la legislación sustantiva ha previsto que el desarrollo del trabajo a distancia deberá ser sufragado o compensado por la empresa, y no podrá suponer la asunción por parte de la persona trabajadora de gastos relacionados con los equipos, herramientas y medios vinculados al desarrollo de su actividad laboral. En este sentido, se dispone a regular el tratamiento que debe darse tanto a las cantidades puestas a disposición de la trabajadora o del trabajador como retribución del trabajo dineraria en la suma que exceda de las pactadas en Convenio Colectivo, o en su caso de su valor de mercado y, por otra parte, previendo que no se considerará retribución de trabajo en especie la entrega por parte del empleador o empleadora de equipos,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

modalitatea baliatzen denean; pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren 17. artikuluaren 2. apartatuan h) letra berria txertatu da horretarako

herramientas y medios vinculados al desarrollo de su actividad laboral, en la modalidad de teletrabajo, mediante la introducción de una nueva letra h) en el apartado 2 del artículo 17 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Era berean, lehenengo erronka horren barruan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren esparruaz denaz bezainbatean, eta gazteek gaur egun hainbat ikuspuntutatik duten egoera zaila kontuan hartuta, hala nola lan egonkorra eta ondo ordaindutakoa izatea edo etxebizitza duina lortzea, 35 urtera arte luzatu da pertsona batek tratamendu fiskal onuragarria baliatu ahal izateko adina.

Asimismo, dentro del primero de los retos señalados, en el ámbito del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, dada la coyuntura en la que se encuentran actualmente las personas jóvenes desde múltiples puntos de vista, como acceso a un trabajo estable y bien remunerado o a una vivienda digna, se eleva hasta los 35 años la edad en la que se considera que una persona es merecedora de un tratamiento fiscal favorable.

Zerga-tratamendu onuragarri edo aldeko horrek, foru arau osoan isla izango duen arren, lehenengo erronkari dagokionez, hau ekarriko du: kenkaria baliatzeko eskubidea sortzen den ekitaldian kuota nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren ondorengoen, ohiko etxebizitza alokatzearen eta ohiko etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkariak sortzen direneko zergaldiaren hurrengo bost urteetan amaitzen diren ekitalditako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, betiere baliatzen diren ekitaldietan zergadunak 36 urte baino gutxiago baditu; hori guztia kontuan hartuz gerta litekeela urteen poderioz ahalmen ekonomiko handiagoa izatea, eta, hori dela eta, aurreko

Este tratamiento fiscal favorable si bien va a verse reflejado a lo largo de toda la Norma Foral, en lo que atañe al primer reto, se materializa en la posibilidad de que las deducciones por descendientes, alquiler de vivienda habitual y adquisición de vivienda habitual no aplicadas en el ejercicio de generación por insuficiencia de cuota puedan aplicarse en las declaraciones de los periodos impositivos que concluyan en los cinco años inmediatos y sucesivos al período impositivo del que procedan, siempre que el período en que se vayan a aplicar el o la contribuyente tenga menos de 36 años, todo ello en previsión de que a lo largo de los años se pueda disponer de una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ekitaldietan sortutako eta aplikatu gabeko kenkariak xurgatzeko kuota nahikoa sortzea. Hala, tratamendu hori ahalbidetzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren VII. tituluan VII bis kapitulu berria txertatu da. Kapitulu horrek 93 bis artikulu berria jasotzen du, «36 urtetik beherako zergadunek kenkari jakin batzuk aplikatzeko araubide berezia» izenekoa, eta, hala, Foru Arau horren 99. artikulua osatu egiten da, h) letra gehituta haren 2. apartatuan, hartara baliatzeko dauden kenkarien aplikazioa arautzeko tributazio-araubidearen arabera, alegia, baterako tributazioaren edo banakakoaren arabera.

mayor capacidad económica que suponga la posibilidad de tener cuota suficiente para absorber las deducciones generadas y no aplicadas en ejercicios anteriores. Este tratamiento se ve reflejado en la inclusión de un nuevo Capítulo VII bis en el Título VII de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que incluye el nuevo artículo 93 bis denominado "Régimen especial para la aplicación de determinadas deducciones por las personas contribuyentes menores de 36 años", complementado en el artículo 99 de la citada Norma Foral con una nueva letra h) en su apartado 2 para regular la aplicación de las deducciones pendientes en función del régimen de tributación, individual o conjunta.

Fiskalitateak aurre egin beharreko bigarren erronka hau da: etxebizitza duina izateko eskubidea gauzatzeko baldintzak sustatzeari lotutakoa da.

El segundo de los retos a los que la fiscalidad debe hacer frente es el relativo a la promoción de las condiciones para el ejercicio del derecho a una vivienda digna.

Etxebizitzari lotutako fiskalitatea edozein gobernuren politika ekonomikoaren ardatz nagusietako bat da. Azken hamarkadetan, neurri ugari baliatu dira etxebizitza eskuratzeko, dela jabetzan, dela alokairuan. Beste alde batetik, nabarmentzekoak dira azken urteetan merkatuan erabilgarri dauden etxebizitzen parkea handitzeko legerian arian-arian txertatzen joan diren neurriak ere, hau da, zehapena edo, bestela, hutsik dauden etxebizitzen jabeek ordaindu beharreko zerga-

La fiscalidad asociada a la vivienda constituye uno de los principales ejes de la política económica de cualquier gobierno. A lo largo de las últimas décadas han sido múltiples las fórmulas que se han empleado para favorecer el acceso a la vivienda, ya sea en régimen de propiedad o de alquiler. Por otra parte, también destacan aquellas medidas que en los últimos años se han ido introduciendo en la legislación para aumentar el parque de viviendas disponible en el mercado, consistentes en una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

karga handiagotzea. Nolanahi ere den, beharrezkoa da sustapeneko neurri fiskalak areagotzea, etxebizitza duina izateko eskubidea bermatze aldera; izan ere, jakin badakigu neurri fiskalek lagundu egin behar diotela helburu horren aldeko apustu sendoa egiten duen funtsezko legeriari. Etxebizitzari lotutako neurri fiskalek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta ondasun higiezinen gaineko zergan izango dute eragina.

penalización o, alternativamente, en un incremento de la carga impositiva que deben abonar las y los propietarios de viviendas desocupadas. Sin embargo, es necesario incrementar las medidas fiscales de fomento para garantizar el citado derecho a una vivienda digna, todo ello, siendo conscientes que aquellas deben ser coadyuvantes a una legislación sustantiva que apuesta firmemente por tal propósito. Las medidas fiscales relacionadas con la vivienda van a afectar al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales Onerosas y Actos Jurídicos Documentados, y a la imposición local en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Lehenengoz eta bat, ohiko etxebizitzaren errentamenduari buruzko xedapenak aipatuko ditugu.

Se hará referencia, en primer lugar, a las disposiciones relativas al arrendamiento de vivienda habitual.

Horrela, errentatzaileari egotzi beharreko fiskalitateari eta kapital higiezinaren etekinen tratamenduari dagokienez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren 32. artikuluan hainbat hobari-ehuneko arautu dira, etekin osoei gastu moduan aplikatzeko, errentan hartzen den etxebizitzaren tipologiaren arabera.

Así, y en lo que atañe a la fiscalidad en sede de la persona arrendadora, y al tratamiento de los rendimientos de capital inmobiliario, se regulan en el artículo 32 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas diferentes porcentajes de bonificación aplicables sobre los rendimientos íntegros en concepto de gastos, en función de la tipología de la vivienda arrendada.

Ildo horretan, ehunekoa 100eko 30 izango da etxebizitzaren behar iraunkorra asetzen duen

En este sentido, el porcentaje será del 30 por 100 cuando se trate de arrendamiento de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

errentamendua denean. Hobari-ehuneko horri gastu gisa gehituko zaizkio besteren kapital inbertituen interesen kopurua —alegia, etekinek jatorri dituzten ondasunak, eskubideak edo erabilera- edo gozamen-ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertituenak— eta gainerako finantzaketa-gastuak, eta munta handiko berritasun gisa, kreditu-aseguruen primen zenbatekoa, errentamendua dela-eta zergadunaren eskubide diren errenta ordaindu gabeen zenbatekoa berdintzen dutenak partez edo osoki, betiere 300 euroko mugaraino.

Bestalde, gastuen ehunekoa 100eko 50 izango da, lehenengoz eta bat, Eusko Jaurlaritzaren programetatik edo autonomia-erkidegoetako, foru-aldundietako edo udaletako etxebizitza-plan eta -programetatik datozen kapital higiezinaren etekinei dagokienez; eta bigarrenik, etxebizitza-errentamendutik datozen kapital higiezinaren etekinei dagokienez, baldin eta errentamenduak behar iraunkor bati erantzuten badio, tentsio-eremutzat deklaratu den bizitegi-merkatu batean kokatuta badago, eta lehen aldiz errentan ematen bada edo azken bost urteetan errentan eman ez bada, eta berriro errentan eman bada. Bi kasuetan, kengarriak izango dira, era berean, etekinen jatorri diren ondasunak, eskubideak edo erabilera- edo gozamen-ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen

vivienda que satisfaga la necesidad permanente de la misma. A este porcentaje de bonificación se unirán como gasto el importe de los intereses de los capitales ajenos invertidos en la adquisición, rehabilitación o mejora de los bienes, derechos o facultades de uso o disfrute de los que procedan los rendimientos, y demás gastos de financiación, y, como novedad de calado, el importe de las primas de seguros de crédito que cubran total o parcialmente el impago de las rentas a las que el o la contribuyente tenga derecho por razón del arrendamiento, con el límite de 300 euros.

Por su parte, el porcentaje de gastos será del 50 por 100, en primer lugar, en el supuesto de rendimientos del capital inmobiliario procedentes de los programas del Gobierno Vasco, o de otros planes y programas de vivienda autonómicos, forales o municipales similares , y en segundo lugar, en el supuesto de rendimientos de capital inmobiliario procedentes del arrendamiento de vivienda que satisfaga una necesidad permanente, situada en una zona declarada de mercado residencial tensionado, cuando esta sea arrendada por primera vez o no lo haya sido en los últimos cinco años y se vuelva a arrendar. En ambos casos serán deducibles, asimismo, los intereses de los capitales ajenos invertidos en la adquisición, rehabilitación o mejora de los bienes, derechos o facultades de uso o disfrute de los que procedan los rendimientos, y demás

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

interesei loturiko gastuak eta gainerako finantzaketa-gastuak, eta bigarrenetan, gainera, aseguru-primen ziozko gastuak, lehen adierazitako baldintzetan.

gastos de financiación, y el segundo de ellos, además, las primas de seguro en los términos antes señalados.

Aurrekoaren osagarri eta behar iraunkorra asetzen duen etxebizitzaren errentamenduaren sustapenaren akuilu gisa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren 63. artikulua aldatzen da, etekin horiek aurrezkiaren errenta osatzen dutenen artean sartzeko.

Tokiko tributaziora etorrita, jarduera ekonomikoen gaineko zergan eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan hautazko hobari bana arautzen da, kuotaren 100eko 50 udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, kasu batean ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako jarduera ekonomikoa egiten badute, eta bestean eraikuntza, instalazio edo obran ekonomia zirkularrarekin lotutako jarduera ekonomikoa egiten bada.

En el ámbito de la tributación local, en el Impuesto sobre Actividades Económicas y en el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras se regulan sendas bonificaciones potestativas del 50 por 100 de la cuota para sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y desarrollen una actividad económica cuyo objeto se encuentre directamente vinculado con la economía circular y para las construcciones, instalaciones u obras en las que se desarrolle una actividad económica igualmente vinculada con la economía circular.

Foru arau honen bidez aurre egiten zaion bosgarren erronka gehikortasuna da, hau da, zerga-karga zergapekoen ahal ekonomikora egokitzea. Agerikoak diren arrazoiengatik, erronka honi aurre egiteko erantzunaren ardatza pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga da, horixe baita zerga-sistemaren birbanatze-efektuan eraginik handiena daukan zerga pertsonala.

El quinto de los retos a los que pretende hacer frente la presente Norma Foral es el relativo a la progresividad, entendida como adecuación de la carga tributaria a la capacidad económica del obligado u obligada a satisfacerla. Por razones obvias derivadas de su configuración, este reto se va a centrar en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, por tratarse del Impuesto personal que asiste como actor principal en la consecución del efecto redistributivo del sistema tributario.

Horren ildotik, lan pertsonalaren hobaria eraldatzen da eta oraindik aurrera lanbide arteko gutxieneko soldata edo hortik beherako soldata jasotzen duten pertsonen zerga-kuota zero izango da. Hain zuzen ere, 8.000 euroko hobaria aplikatu ahal izango da lanaren etekin

En este sentido, se debe destacar la nueva configuración de la bonificación del trabajo personal adecuándola de tal forma que cualquier persona que perciba un salario igual o inferior al Salario Mínimo Interprofesional obtenga una cuota nula en el Impuesto. En este

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

guztien baturaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboa 14.800 euro edo gutxiago denean; hobari txikiena 3.000 eurokoa izango da, aurrean aipatutako diferentzia 23.000 eurotik gorakoa denean. Kolektibo zaurgarri batzuek aplikatu ditzaketen hobari-ehuneko gehituak lehengo berak dira, zergaren foru arauaren 23. artikuluaren arabera.

Aurrekoarekin estu lotuta, eta kontuan edukita aurrean aipatutako lanaren etekinen hobariak osagarri bat behar duela zergaren karga zergadunen ahal ekonomikora egokitzeko, zergaren foru arauaren 102. artikuluan ezartzen da muga bakarra (19.000 euro urtean) aplikatuko zaie lanaren etekin gordinei, banakako tributazioan, eta baterakoan halako errentak izan dituen zergadun bakoitzarentzat, eta hortik gorakoak izanez gero aitorpena egiteko betebeharra izango dela. Lehen bezala, kapitalaren etekin gordinen eta ondare-irabazien urteko muga 1.600 euro izango da (salbuetsiak barne, bi kasuetan). Halaber, aldaketa horrekin bat etorriz eta zerga errazago kudeatu ahal izateko, aitorpena aurkeztu beharra ezabatzen da zenbait kasutan, bai eta aitorpen laburra aurkezteko aukera ere.

sentido, se parte de una bonificación de 8.000 euros cuando la diferencia positiva entre el conjunto del rendimiento íntegro del trabajo y los gastos deducibles sea igual o inferior a 14.800 euros, siendo la bonificación más baja de 3.000 euros en el caso en que la diferencia señalada sea superior a 23.000 euros. Los porcentajes incrementados de bonificación para determinados colectivos vulnerables se mantienen inalterados en el artículo 23 de la Norma Foral del Impuesto.

En íntima relación con lo anterior, y teniendo en cuenta que la bonificación del trabajo anteriormente señalada necesita de un complemento para adecuar el tributo a la capacidad económica de la persona contribuyente, en el artículo 102 de la Norma Foral del Impuesto se establece un límite único de 19.000 euros anuales de rendimientos brutos del trabajo en tributación individual, y en tributación conjunta respecto de cada uno de las y los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos, a partir del cual existe obligación de declarar, manteniéndose el límite de los 1.600 euros anuales para los rendimientos brutos del capital y ganancias patrimoniales, incluidos en ambos casos los exentos. Asimismo, en consonancia con la modificación y para facilitar la gestión del tributo se elimina la obligación de declarar en determinados supuestos específicos y con ello la posibilidad que existía de realizar una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

declaración abreviada.

Hori guztia osatzeko, aitorpena aurkeztu beharrera egokitutako atxikipen-taula berria eratu beharko da, eta erregelamenduz onetsiko da.

Todo lo anterior debe de ser complementado con una nueva tabla de retenciones adecuada a la obligación de declarar y que será aprobada por vía reglamentaria.

Azkenik, zergaren gehikortasuna sendotzeko, aurrezkiaren likidazio-oinarriari aplikatuko zaion tarifa berria ezartzen da foru arauaren 76. artikuluan: oraindik aurrera sei izango dira (orain arte, bost).

En último término, y como contribución a la progresividad del tributo, se elabora una nueva tarifa a aplicar a la base liquidable del ahorro prevista en el artículo 76 de la Norma Foral pasando a seis tramos frente a los cinco actuales.

Seigarren erronka, azkena, ekoizpen-sektorea babestea eta bultzatzea da. Erronka horren bitartez lortu nahi da Bizkaia lurralde erakargarria izatea talentuarentzat eta inbertsioentzat, ekonomia lehiakorra izatea eta lanpostu onak sortzea, arreta enpresa-eragile txikietan ipinita.

El sexto y último reto se refiere a la protección e impulso del tejido productivo. A través de este reto se pretende hacer de Bizkaia un territorio pujante y atractivo para el talento y las inversiones, con un tejido económico competitivo que genere empleo de calidad, poniendo el foco de atención en los agentes empresariales de menor dimensión.

Horretarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren 41. artikulua aldatzen da ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo aurreko edo ondorengo ahaide baten alde enpresen edo partaidetzen kostu gabeko eskualdaketek ondare-irabazirik sortzen ez dutenerako: oraindik aurrera, bi urteko epealdia egongo da, eskualdaketa egiten denetik, akzioen eskualdatzaileak zuzendaritza-lanei uzteko, enpresa arian-arian errazago pasa dadin eskuratzaileen eskura. Horren ondorioz

Así, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se modifica el artículo 41 en relación con la inexistencia de ganancia patrimonial con ocasión de las transmisiones lucrativas de empresas o participaciones en favor del cónyuge, pareja de hecho, ascendientes o descendientes, regulando un nuevo plazo de dos años desde el momento de la transmisión para dejar de ejercer funciones de dirección por parte del transmitente de las acciones facilitando un traspaso gradual de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren foru arauaren 43.4.b artikulua aldatzen da, hobaria aplikatu ahal izateko banakako enpresa, negozio profesional edo entitate baten partaidetza «mortis causa» eskuratzen denean.

empresa a las y los adquirentes. Consecuentemente, se modifica el artículo 43.4.b de la Norma Foral del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones para la aplicación de la bonificación para las adquisiciones «mortis causa» de una empresa individual, de un negocio profesional o participaciones en entidades.

Beste alde batetik, sozietateen gaineko zergan, aldaketen xede nagusiak, lehen adierazi den bezala, neurriak direla eta garatzeko zailtasun handiak dauzkaten entitateak dira.

Por su parte, en el ámbito del Impuesto sobre Sociedades, como se ha señalado anteriormente las modificaciones se van a centrar en aquellas entidades que, por su dimensión, tienen más dificultades de desarrollo.

Horren ildotik, gastuen arloan, mikroenpresek badute aukera erabiltzeko beren tamainak eragiten dituen zailtasunen zerga-konpentsazio gisa zerga-oinarrian gastu gisa aplika dezaketen kenkariaren ehunekoaren gehikuntza (% 10etik % 15era),eta *sine die* finkatzen da aukera hori (zergaren foru arauaren 32. artikuluaren 4. apartatuan ezarri zen COVID-19aren eta Ukrainako gerraren ondorioak arintzeko).

En este sentido, en materia de gastos se consolida *sine die* para microempresas la elevación del 10% al 15 % el porcentaje de la base imponible positiva a deducir como gasto en concepto de compensación tributaria por las dificultades inherentes a su dimensión previsto en el apartado 4 del artículo 32 de la Norma Foral del Impuesto y que se había introducido para paliar los efectos derivados de la pandemia de la COVID-19 y de la guerra en Ucrania.

Beste alde batetik, ezabatu egiten da 55. artikuluaren 1. apartatuan mikroenpresei eta enpresa txikiei likidatu edo autolikidatu gabeko zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko aplikatzen izan zaien 100eko 70eko muga; beraz, oraindik aurrera ez dute edukiko mugarik eta zerga-oinarria zero izatea lortu

Por otra parte, en el apartado 1 del artículo 55 se ha eliminado el límite del 70 por 100 anteriormente previsto para las microempresas y pequeñas empresas en orden a la compensación de las bases imponible negativas pendientes de liquidación o autoliquidación, por lo que a partir de este momento lo pueden

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ahal izango dute.

Gutxieneko tributazioa dela eta, entitateek orain arte gutxieneko zerga-tasaren ehunekoak aplikatu ahal izan dituzte, orokorrean ezarritakoak baino txikiagoak, eta oraindik aurrera, zergaren foru arauaren 59. artikuluan egiten den aldaketa baten bidez —zeina beharrezkoa baita horretarako—, aukera hori honen araberakoa izango da: plantillan kontratu mugagabedun langileen batez bestekoari eusten zaion edo gehitzen den, baina laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako pertsonei buruz baizik ez; beraz, zerga-tasa txikituak aplikatzea zailagoa izango da.

Azkenik, zenbait aldaketa egiten dira kooperatiben zerga-araubidean (6/2018 Foru Araua, abenduaren 12koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzkoa): batetik, bereziki babestutako etxebizitzen kooperatibatzat jotzen dira bazkideei etxebizitzen erabilera eta gozamena lagapen bidez ematen dizkieten etxebizitzen kooperatibak, betiere kooperatibak ez badizkie bazkideei ostalaritza-industriaren berezko zerbitzu osagarririk ematen; bestetik, oraindik aurrera pertsona fisikoek onura publikoko kooperatiben eta gizarte-ekimeneko kooperatiben alde egiten dituzten emariei eta ekarpenei 4/2019 Foru Araua aplikatu ahal

realizar sin límite alguno pudiendo hacer su base imponible nula.

En materia de tributación mínima, la posibilidad de las entidades de aplicar porcentajes de tributación mínima inferiores a los establecidos con carácter general, se va a vincular al mantenimiento o incremento de su promedio de plantilla laboral con carácter indefinido únicamente de personas incluidas en alguno de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo, restringiendo, por ello el acceso a los citado porcentajes reducidos, mediante la modificación del artículo 59 de la Norma Foral del Impuesto.

Para finalizar procede mencionar las modificaciones llevadas a cabo en el régimen fiscal de las cooperativas regulado en la Norma Foral 6/2018, de 12 de diciembre, sobre régimen fiscal de cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia, para, por una parte, incluir como cooperativas de vivienda especialmente protegidas las cooperativas de viviendas cuyo objeto fuera procurar a sus personas socias el uso y disfrute de viviendas mediante su cesión, siempre que la cooperativa no preste a la persona socia servicios complementarios propios de la industria hotelera, y, por otra, establecer la posibilidad de que a los donativos y aportaciones efectuadas por personas físicas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izango zaie (4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzkoa).

a favor de las Cooperativas de Utilidad Pública y a las Cooperativas de Iniciativa Social les sea de aplicación la Norma Foral 4/2019, de 20 de marzo, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluaren 1. eta 3. apartatuetan xedatutakoa betez, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, baita genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena ere.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

Halaber, bete dira Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen 87/2021 Foru Dekretuak ezarritako izapideak (Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretua, ekainaren 15ekoa).

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

I. KAPITULUA

FAMILIA, BERDINTASUNA, KONTZILIAZIOA, EMAKUMEA ETA GAZTERIA

1. artikulua. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa.*

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari

CAPÍTULO I

FAMILIA, IGUALDAD, CONCILIACIÓN, MUJER Y JUVENTUD

Artículo 1. *Modificación de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

Con efectos desde 1 de enero de 2025, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Bat. f) letra gehitzen zaio 16. artikuluari; hona testua:

Uno. Se añade una nueva letra f) en el artículo 16, con el siguiente contenido:

«f) Telelanaren modalitatean egindako lanaren ondorioz langileak jasandako gastuen konpentsazio gisa haren esku jarritako zenbatekoak, salbu eta Hitzarmen Kolektiboak unean-unean ezarritako zenbatekoak gainditzen ez dituztenak, gastu horien merkatuko balioaren mugaraino.»

"f) Las cantidades puestas a disposición de la persona trabajadora en concepto de compensación por los gastos soportados por esta como consecuencia de su trabajo desarrollado en la modalidad de teletrabajo, excepto aquellas que no excedan de los importes establecidos en cada momento por Convenio Colectivo, hasta el límite del valor de mercado de los citados gastos."

Bi. h) letra gehitzen zaio 17. artikuluaren 2. apartatuari; hona testua:

Dos. Se añade una nueva letra h) en el apartado 2 del artículo 17, con el siguiente contenido:

«h) Enplegatzaileak bere lan-jarduerarako beharrezkoak diren ekipoak, erremintak eta bitartekoak ematea, telelanaren modalitatean, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.»

"h) La entrega por parte del empleador o empleadora de equipos, herramientas y medios necesarios para el desarrollo de su actividad laboral, en la modalidad de teletrabajo, en las condiciones que se establezcan reglamentariamente."

Hiru. Berridazten da 25. artikuluaren 5. apartatua; honela idatzita geratzen da:

Tres. Se da nueva redacción al apartado 5 del artículo 25, que queda redactado en los siguientes términos:

«5. Jarduera ekonomiko batean hasten diren zergadunek 100eko 10 murriztu ahal izango dute jarduera horren etekin garbi positiboa, eta 100eko 15, berriz, emakumeak badira, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ondoren, hala badagokio, etekina positiboa den lehen

"5. Las personas contribuyentes que inicien el ejercicio de una actividad económica podrán reducir en un 10 por 100 el rendimiento neto positivo de la misma y en un 15 por 100 si son mujeres, una vez aplicado, en su caso, lo dispuesto en el apartado anterior, en el primer

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zergaldian eta hurrengo zergaldian, betiere etekin garbi positibo hori lortzen den lehen zergaldia jarduera hasi ondorengo lehen bost zergaldietan barruan gertatzen bada.

periodo impositivo en el que este sea positivo y en el periodo impositivo siguiente, siempre que el primer periodo impositivo en que se obtenga dicho rendimiento neto positivo tenga lugar en los cinco primeros periodos impositivos desde el inicio de su actividad.

Horri dagokionez, ez da ulertuko jarduera ekonomiko bat hasten denik, baldin eta zergadunak aurretik jarduera hori bera zuzenean edo zeharka egin badu. Zergadunak aurretik jarduera berean jardun duela joko da jarduera hori talde berean sailkatuta badago ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifetan.

A estos efectos no se entenderá que se inicia el ejercicio de una actividad económica, cuando la misma se haya desarrollado con anterioridad directa o indirectamente por la persona contribuyente. Se entenderá que la persona contribuyente desarrolla la misma actividad cuando ésta esté clasificada en el mismo grupo dentro de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Murriztapen hau ez da aplikatuko baldin eta jarduera hasi aurreko urtean zergadunak lanaren etekinak jaso bazituen pertsona edo entitate batengandik eta hasitako jarduera ekonomikoaren ondoriozko sarreren 100eko 50 baino gehiago pertsona edo entitate horrengandik lortutakoak badira.»

No resultará de aplicación esta reducción en el periodo impositivo en el que más del 50 por 100 de los ingresos derivados de la actividad económica iniciada procedan de una persona o entidad de la que la persona contribuyente hubiera obtenido rendimientos de trabajo en el año anterior a la fecha de inicio de la actividad."

Lau. Berridazten da 73. artikulua; honela idatzita geratzen da:

Cuatro. Se da nueva redacción al artículo 73, que queda redactado en los siguientes términos:

«73. artikulua. *Murriztapena batera tributatzeagatik*.

"Artículo 73. *Reducción por tributación conjunta*.

Foru-arau honen 98. artikuluan xedatutakoaren arabera baterako tributazioa hautatuz gero, urteko 4.800 euroko

En los supuestos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 98 de esta Norma Foral se opte por la tributación conjunta, la base

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

murriztapena egin ahal izango da aitorpen bakoitzeko zerga-oinarri orokorrean.»

Bost. Berridazten da 80. artikulua; honela idatzita geratzen da:

«80. artikulua. *Kenkaria ondorengoen mantenurako urtekoak ordaintzeagatik*.

Epaileen erabakiz bigarren gradura arteko ondorengoen mantenurako urtekoak modu esklusiboan ordaintzen dituzten zergadunek kontzeptu horregatik ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria egiteko eskubidea dute. Ondorengo bakoitzeko muga hau aplikatuko da: aurreko artikuluaren 1. apartatuan ondorengo bakoitzarentzat ezartzen den kenkariaren ehuneko 30.»

Sei. 83 bis, 83 ter eta 83 quater artikuluak gehitzen dira VII. tituluko II. kapituluaren barruan; hona testuak:

«83 bis artikulua. *Kenkaria adingabeak eta mendekotasun- edo desgaitasun-gradu jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik*.

1. Pertsona jakin batzuk zaintzeko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutako langileak mugagabe kontratatzeagatik zenbatekoak ordaintzen dituzten zergadunek 250 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute zergaldi bakoitzeko.

imponible general se reducirá en el importe de 4.800 euros anuales por declaración."

Cinco. Se da nueva redacción al artículo 80, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 80. *Deducción por abono de anualidades por alimentos a los descendientes*.

Las y los contribuyentes que, por decisión judicial, satisfagan en exclusiva anualidades por alimentos a favor de sus descendientes hasta el segundo grado, tendrán derecho a la aplicación de una deducción del 15 por ciento de las cantidades abonadas por este concepto, con el límite, para cada descendiente, del 30 por ciento del importe que corresponda de la deducción establecida en el apartado 1 del artículo anterior."

Seis. Se introducen nuevos artículos 83 bis, 83 ter y 83 quater dentro del Capítulo II del Título VII, con el siguiente contenido:

"Artículo 83 bis. *Deducción por cuidado de menores y personas con determinado grado de dependencia o discapacidad*.

1. Los y las contribuyentes que satisfagan cantidades por la contratación de forma indefinida a trabajadores o trabajadoras afiliadas en el Sistema Especial para Empleados de Hogar del Régimen General de la Seguridad Social para el cuidado de determinadas personas, podrán practicar una deducción de 250 euros por periodo impositivo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bi zergadunek edo gehiagok kenkari hori aplikatzeko eskubidea badute, zenbatekoa zati berdinetan hainbanatuko da.

2. Kenkaria aplikatu ahal izango da honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Zergaduna 6 urtetik beherako pertsona batekin edo batzuekin bizi bada, direla haren ondorengoak, adoptatuak, harreran hartutakoak edo tutoretzapean hartutakoak, eta foru-arau honen 79. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten bizikidetza- eta errenta-arloetako baldintzak betetzen badituzte.

b) Zergaduna pertsona hauetako batekin edo batzuekin bizitzea: ondorengoak, adoptatuak, harreran edo turoretzapean hartutakoak eta aurreko ahaideak, zuzeneko lerrokoak, odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasun edo adopzio bidezkoak, bigarren gradura artekoak, betiere pertsona horiek % 65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua badute, edo mendekotasun-egoera aitortua badute edozein gradutan, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, eta foru-arau honen 79. eta 81. artikuluetan ezarrita dauden

Cuando dos o más contribuyentes tengan derecho a la aplicación de esta deducción, su importe se prorrateará por partes iguales.

2. La deducción resultará aplicable cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:

a) Que el o la contribuyente conviva con una o varias personas menores de 6 años, sean descendientes, adoptadas, acogidas o tuteladas del mismo o de la misma, que cumplan los requisitos de convivencia y renta que den derecho a la aplicación de la deducción prevista en el artículo 79 de esta Norma Foral.

b) Que el o la contribuyente conviva con una o varias personas descendientes, adoptadas, acogidas o tuteladas, ascendientes en línea directa, por consanguinidad, afinidad, adopción hasta el segundo grado que tengan la consideración de personas con discapacidad con un grado igual o superior al 65 % o que tengan reconocida la situación de dependencia en cualquiera de sus grados, de acuerdo con lo previsto en el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, y cumplan los requisitos de convivencia y renta que den derecho a la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ondorengoengatiko edo aurreko ahaideengatiko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten bizikidetza- eta errenta-arloetako baldintzak betetzen badituzte.

aplicación de la deducción por descendientes o ascendientes previstas en los artículos 79 y 81 de esta Norma Foral.

c) Zergadunak edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak aurreko b) letran aipatutako mendekotasun- edo desgaitasun-graduren bat aitortua izatea.

c) Que el o la contribuyente o su cónyuge o pareja de hecho tengan reconocido alguno de los grados de dependencia o discapacidad referidos en la letra b) anterior.

3. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

3. Para la aplicación de la deducción regulada en este artículo deben cumplirse los siguientes requisitos:

a) Kontratazioa dela-eta zenbatekoak ordaintzen dituzten zergadunetako bat Gizarte Segurantzan alta emanda egotea familia-etxe baten titularra den enplegatzaile gisa, eta pertsona bati edo batzuei kontratu mugagabea egitea eta pertsona horiek direla-eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian kotizatzea kenkaria aplikatu nahi den aldian.

a) Que alguno de los o de las contribuyentes que satisfaga cantidades por la contratación esté en situación de alta en la Seguridad Social como persona empleadora titular de un hogar familiar, haya contratado con carácter indefinido una o varias personas respecto de las que cotice en el Sistema Especial para Empleados de Hogar del Régimen General de la Seguridad Social durante el periodo en que se pretenda aplicar la deducción.

Ondorio horietarako, aurreko baldintza betetzat joko da kontratazioa etxean laguntza eta zaintza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituzten enpresen bitartez formalizatzen bada.

A estos efectos, se entenderá cumplido el requisito anterior, cuando la contratación se formalice a través de empresas que proporcionan servicios de asistencia y cuidado personal en el hogar.

Kontratazioa egiten den edo lan-harremana amaitzen den zergaldian, kontratuaren gutxieneko iraupena 183 egun izango da.

En el período impositivo en el que se efectúe la contratación o la extinción de la relación laboral, la duración mínima del contrato será de 183 días.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Zergadunek eta, hala badagokio, haien ezkontideek edo izatezko bikoteek beren konturako edo besteren konturako jarduerak egin behar dituzte, zeinengatik ekitaldian lanaren edo jarduera ekonomikoen ziozko etekinak jasotzen baitituzte, salbu eta foru-arau honen 82. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen desgaitasun- edo mendekotasun-graduren bat aitortua badute.

b) Los y las contribuyentes, y en su caso, sus cónyuges o parejas de hecho, deben desarrollar actividades por cuenta propia o ajena por las cuales perciban rendimientos del trabajo o de actividades económicas en el ejercicio, salvo que tengan reconocido alguno de los grados de discapacidad o dependencia que den derecho a la aplicación de la deducción prevista en el artículo 82 de la presente Norma Foral.

4. Aurreko 1. apartatuan ezarritako kenkariaren zenbatekoa 500 euro izango da zergaldi bakoitzeko, zaintzailea aurreko 2. apartatuko b) eta c) letretan aipatzen diren pertsonak zaintzeko profesionala bada, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

4. El importe de la deducción prevista en el apartado 1 anterior será de 500 euros por periodo impositivo cuando la persona cuidadora tenga la consideración de profesional del cuidado de personas a las que se refieren las letras b) y c) del apartado 2 anterior, en los términos que se establezcan reglamentariamente.

«83 ter artikulua. *Kenkaria desgaitasuna edo mendekotasuna duten eta egoitzetan bizi diren pertsonen gastuengatik.*

Artículo 83 ter. *Deducción por gastos de personas con discapacidad o dependencia en centros residenciales.*

1. Egoitza batean urte natural osoan etengabe eta jarraian bizi den zergadunak 385 euroko kenkaria aplikatu ahal izango du aitorpenean.

1. La o el contribuyente que resida de forma continua y permanente durante todo el año natural en un centro residencial podrá aplicar en su declaración una deducción de 385 euros.

2. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

2. Para aplicar esta deducción se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Egoitza batean bizi den zergadunak (aurreko 1. apartatuan aipatutakoa) aitortua izatea foru-arau honen 82. artikuluan ezarritako desgaitasunagatiko edo mendekotasunagatiko

a) Que la o el contribuyente que resida en el centro residencial a que se refiere el apartado 1 anterior tenga reconocido un grado de discapacidad o dependencia que genere el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen desgaitasun- edo mendekotasun-gradu bat.

derecho a la aplicación de la deducción por discapacidad o dependencia prevista en el artículo 82 de esta Norma Foral.

b) Foru-arau honen 82. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren arabera, berak modu pertsonalean hautatzea desgaitasun edo mendekotasunagatiko kenkari hori aplikatzea.

b) Que, de acuerdo con lo establecido en el apartado 4 del artículo 82 de esta Norma Foral, opte por aplicar él o ella misma, de forma personal, la citada deducción por discapacidad o dependencia.

c) Frogatzea zergaldian kopuru batzuk ordaindu dituela egoitza-zentro horretako egonaldi-gastuak ordaintzeko.

c) Que acredite que, durante el período impositivo, ha satisfecho cantidades para sufragar los gastos de estancia en dicho centro residencial.

3. Desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsonaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak aplikatu ahal izango du kenkari hori, baldin eta egoiliarraren egonaldi-gastuak ordaintzeko zenbatekoak ordaintzen baditu, egoiliarrak artikulu honen 2. apartatuaren a) letran ezarritako baldintza betetzen badu eta aitorpenean kenkari hau aplikatu ez badu.»

3. Esta deducción podrá ser aplicada por la o el cónyuge o pareja de hecho de la persona con discapacidad o dependencia, siempre que satisfaga cantidades para sufragar los gastos de estancia de la persona residente, esta cumpla el requisito establecido en la letra a) del apartado 2 de este artículo y no haya aplicado en su declaración la presente deducción."

«83 quater artikulua. *Kenkaria hiru urtetik beherako adingabeak zaindu ondoren lan-merkatura itzultzeagatik.*

Artículo 83 quater. *Deducción por reincorporación al mercado laboral tras el cuidado de menores.*

1. Zergadunek, lan-merkatura itzultzen diren ekitaldian, adingabeko ondorengoak edo adoptatuak zaintzeagatik lan-, enpresa- edo lanbide-jarduera gelditu edo utzi ondoren, 1.200 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute, zergaduna emakumea bada edo, 1.500 eurokoa, gizona bada, jaiotzagatiko edo adingabeak zaintzeagatiko baimen ordainduak

1. Las personas contribuyentes podrán aplicar, en el ejercicio en el que se reincorporen al mercado laboral, tras haber paralizado o cesado en su actividad laboral, empresarial o profesional con motivo del cuidado de descendientes o adoptados menores de edad, una deducción de 1.200 euros, cuando la persona contribuyente sea mujer, o de 1.500

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta legez aitortuak amaitzen direnetik lanera itzuli arte igarotzen den jardueraren geldiarazte- edo uzte-urte bakoitzeko.

euros, cuando sea hombre, por cada año de paralización o cese que transcurra desde la finalización de los permisos por nacimiento y cuidado de menores remunerados y legalmente reconocidos hasta la reincorporación.

Erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan, kenkari hori 100eko 50 gehituko da.

Esta deducción se incrementará en un 50 por 100 cuando se trate de partos o adopciones múltiples.

2. Kenkaria aplikatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

2. Para la aplicación de la deducción se deberán cumplir los requisitos que se establecen a continuación:

a) Gizarte Segurantzan alta emanda egon izana, besteren konturako edo norberaren konturako langile gisa, kooperatibako bazkide langile gisa edo funtzionario gisa, gutxienez 9 hilabetez, jaiotzaren edo adopzioa formalizatu aurreko 18 hilabeteetan.

a) Haber estado de alta en la seguridad social en calidad de persona trabajadora por cuenta ajena o por cuenta propia, persona socia trabajadora de cooperativa o personal funcionario, durante al menos 9 meses dentro de los 18 meses inmediatos y anteriores a la fecha del nacimiento o formalización de la adopción.

b) Jaiotzagatiko edo adingabeak zaintzeagatiko baimen ordainduak eta legez aitortuak amaitu ondorengo 12 hilabeteetan gutxienez jarduera ordaindurik ez egitea.

b) No haber desempeñado actividad retribuida durante, al menos, los 12 meses inmediatos y posteriores a la fecha de finalización de los permisos por nacimiento y cuidado de menor remunerados y legalmente reconocidos.

c) Lan-merkatura itzuli izana aurreko b) letran ezarritako 12 hilabeteko gutxieneko epea amaitzen denetik kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen adingabeak hiru urte betetzen dituen egunaren ondorengo 12 hilabeteetara bitarteko aldian.

c) Haberse reincorporado al mercado laboral dentro del periodo comprendido entre la finalización del plazo mínimo de 12 meses establecido en la letra b) anterior y los 12 meses posteriores al día en el que el menor que genere el derecho a aplicar la deducción cumpla

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

los tres años.

Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu- eta zerbitzu-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonak ere lan-merkatura itzuli direla joko da, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

A estos efectos, se considerará asimismo que se han reincorporado al mercado laboral las personas inscritas como demandantes de empleo y servicios en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo, en las condiciones que se establezcan reglamentariamente.

3. Orobat, aurreko apartatuko b) letran aipatzen den betekizuna betetzat joko da, zergadunak bere lan-jarduerarekin jarraitu badu letra horretan aipatzen den aldian, baina aldi horretan lanaldi murriztuko modalitate bati heldu badio eta gehienez ere bere lanpostuko lanaldi osoari dagokion denboraren ehuneko 67 lan egin badu.

3. Se entenderá asimismo cumplido el requisito a que se refiere la letra b) del apartado anterior cuando la persona contribuyente haya continuado con su actividad laboral durante el periodo al que se refiere dicha letra, pero haya pasado a acogerse durante el mismo a una modalidad de jornada reducida de trabajo que suponga trabajar un máximo del 67 por ciento del tiempo correspondiente a la jornada completa de su puesto de trabajo.

Apartatu honetan adierazitako egoera gertatzen denean, zergaduna bere lanpostuko lanaldi osoari dagokion denboraren ehuneko 85 gutxienez egiten hasten denean ulertuko da zergaduna lan-merkatura itzuli dela, aurreko apartatuko c) letran aipatzen den moduan.

Cuando se dé la circunstancia señalada en este apartado se entenderá que se ha producido la reincorporación al mercado laboral a que se refiere la letra c) del apartado anterior cuando el o la contribuyente pase a realizar una jornada de trabajo que suponga trabajar, al menos, el 85 por ciento del tiempo correspondiente a la jornada completa de su puesto de trabajo.

Halako kasuetan, artikulu honen 1. apartatuan ezarritako kenkaria hainbanatu egingo da aplikatzen den lanaldi-murrizketaren ehunekoaren arabera.

En estos supuestos, la deducción prevista en el apartado 1 de este artículo se prorrateará en función del porcentaje de reducción de la jornada de trabajo que se aplique.

4. Jarduera gelditzea edo uztea urte-zati

4. Cuando la paralización o cese de la actividad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

batean luzatu bada, kenkariaren zenbatekoa proportzionala izango da urte-zati horrek urte osoaren gainean duen egun-kopuruarekiko.

se haya extendido durante una fracción de año la cuantía de la deducción será proporcional al número de días que dicha fracción represente sobre la totalidad del mismo.

Guraso edo adoptatzaile bat baino gehiago bizi badira kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen adingabearekin, kenkaria erdibana zatituko da haietako bakoitzaren aitorpenean.

Cuando exista más de una persona progenitora o adoptante que convivan con el o la menor que genere el derecho a aplicar la deducción, esta se practicará por mitades en la declaración de cada uno de ellos.

5. Lan-merkatura itzuli den zergaldian kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak hurrengo bost zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira.

5. Las cantidades no deducidas por insuficiencia de cuota íntegra en el periodo impositivo de reincorporación al mercado laboral se podrán aplicar en las declaraciones de los cinco periodos impositivos siguientes.

6. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengoen parekotzat joko dira adopzioa egiteko tutoretzaren, familia-harrera iraunkorraren edo zaintzaren bidez zergadunari lotutako pertsonak, baldin eta adingabeen babesaren arloan eskumena duen entitate publikoaren aurrean formalizatu bada tutoretza, harrera edo zaintza.»

6. A los efectos de este artículo, se asimilarán a los descendientes aquellas personas vinculadas a la persona contribuyente por razón de tutela, acogimiento permanente o guarda con fines de adopción formalizados ante la Entidad Pública con competencia en materia de protección de menores."

Zazpi. Berridazten dira 89. artikuluko 1. apartatua eta 3. apartatuaren lehenengo paragrafoa; honela idatzita geratzen dira:

Siete. Se da nueva redacción al apartado 1 y al primer párrafo del apartado 3 del artículo 89, que quedan redactados en los siguientes términos:

«1. Zergadunek 100eko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 1.200 euroko gehieneko mugarekin, eta 100eko 15eko kenkaria emakumeak badira, urteko 1.800 euroko gehieneko mugarekin, lan egiten duten

"1. Las personas contribuyentes podrán aplicar una deducción del 10 por 100, con un límite anual máximo de 1.200 euros y del 15 por 100, con el límite de 1.800 euros si son mujeres, de las cantidades satisfechas en metálico en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

entitateko edo sozietate-taldeko beste edozein entitatetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindu dituzten kopuruengatik.»

«3. Halaber, zergadunek 100eko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 6.000 euroko gehieneko mugarekin, eta 100eko 15eko kenkaria emakumeak badira, urteko 9.000 euroko gehieneko mugarekin, lan egiten duten entitateko edo sozietate-taldeko beste edozein entitatetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindu dituzten kopuruengatik, baldin eta funts horiek euskal administrazio publikoek eratutako funtsen maileguetatik badatoz.»

Zortzi. Berridazten da 90. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetako lehen paragrafoa; honela idatzita geratzen dira:

«1. Zergadunek 100eko 25eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, edo 100eko 30ekoa emakumeak badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat jotzen diren enpresetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik edo eskuratzeagatik ordaindutako zenbatekoengatik; gainera, kapitalari aldi baterako ekarpena egiteaz gain,

período impositivo destinadas a la adquisición o suscripción de acciones o participaciones en la entidad o en cualquiera del grupo de sociedades, en la que prestan sus servicios como personas trabajadoras."

"3. Asimismo, las personas contribuyentes podrán aplicar una deducción del 10 por 100, con un límite anual máximo de 6.000 euros y del 15 por 100, con un límite de 9.000 euros si son mujeres, de las cantidades satisfechas en metálico en el período impositivo, provenientes de préstamos de Fondos constituidos por las Administraciones Públicas vascas, que se destinen a la adquisición o suscripción de acciones o participaciones en la entidad o en cualquiera del grupo de sociedades, en la que prestan sus servicios como personas trabajadoras."

Ocho. Se da nueva redacción al primer párrafo de los apartados 1 y 2 del artículo 90, que quedan redactados en los siguientes términos:

"1. Las personas contribuyentes podrán aplicar una deducción del 25 por 100 y del 30 por 100 si son mujeres, de las cantidades satisfechas por la suscripción o adquisición de acciones o participaciones en empresas que tengan la consideración de microempresa, pequeña o mediana empresa conforme a lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, pudiendo, además de la aportación temporal al capital, aportar sus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

inbertitzen duten entitatea garatzeko egokiak diren enpresa- edo lanbide-ezagutzak ere eman ahal izango dituzte, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio-akordioan ezarritako baldintzetan.»

«2. Aurreko apartatuan ezarritako kenkaria ordaindutako kopuruen 100eko 35ekoa izango da, eta 100eko 40koa emakumeen kasuan, enpresa berritzaileen akzioak edo partaidetzak harpidetzen edo eskuratzen badira, edo xede soziala zilarrezko ekonomiari zuzenean lotua duten enpresenak, baldin eta mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo ertaintzat jotzen badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.»

Bederatzi. VII bis kapitulua gehitzen zaio VII. tituluari, VII. kapituluaren ondoren; hona testua:

«VII bis kapitulua. 36 URTETIK BEHERAKO ZERGADUNEK KENKARI JAKIN BATZUK APLIKATZEKO ARAUBIDE BEREZIA.

93 bis artikulua. *36 urtetik beherako zergadunek kenkari jakin batzuk aplikatzeko araubide berezia.*

1. Zergadunek foru-arau honen 79., 86. eta 87. artikuluetan jasotako kenkariei dagozkien zenbatekoak kendu ahal izango dituzte, baldin eta kenkari horiek ezin izan badira kendu aplikatzeko eskubidea sortu zen zergaldian

conocimientos empresariales o profesionales adecuados para el desarrollo de la entidad en la que invierten, en los términos que establezca el acuerdo de inversión entre el o la contribuyente y la entidad."

"2. La deducción establecida en el apartado anterior será del 35 por 100 y del 40 por 100 para las mujeres, de las cantidades satisfechas, cuando se trate de la suscripción o adquisición de acciones o participaciones de empresas innovadoras o de aquellas cuyo objeto social se encuentre directamente vinculado con la economía plateada, que tengan la consideración de microempresa, pequeña o mediana empresa conforme a lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades."

Nueve. Se introduce un nuevo Capítulo VII bis dentro del Título VII a continuación del Capítulo VII, con el siguiente contenido:

"Capítulo VII bis. RÉGIMEN ESPECIAL PARA LA APLICACIÓN DE DETERMINADAS DEDUCCIONES POR LAS PERSONAS CONTRIBUYENTES MENORES DE 36 AÑOS.

Artículo 93 bis. *Régimen especial para la aplicación de determinadas deducciones por las personas contribuyentes menores de 36 años.*

1. Los y las contribuyentes podrán deducir las cantidades correspondientes a las deducciones contempladas en los artículos 79, 86 y 87 de esta Norma Foral que no hayan podido deducirse en el período impositivo en el que se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kuota osoa nahikoa ez izateagatik, jatorrizko zergaldirako ezarritako ehunekoak, mugak eta gainerako baldintzak errespetatuz.

generó el derecho a su aplicación por insuficiencia de cuota íntegra, respetando los porcentajes, límites y demás requisitos establecidos para el período impositivo de origen.

Aurreko paragrafoan adierazi diren kendu gabeko kopuruak jatorrizko zergaldiaren hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldien aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, betiere aplikatu beharreko aldian zergadunak 36 urte baino gutxiago badauzka, eta ezin izango dira aplikatu bost urteko epetik kanpo hurrengo ekitaldietan aplikatu gabe geratzen diren kenkariei metatuta.

Las cantidades no deducidas a las que se refiere el párrafo anterior se podrán aplicar en las declaraciones de los periodos impositivos que concluyan en los cinco años inmediatos y sucesivos al período impositivo del que procedan, siempre que el período en que se vayan a aplicar el o la contribuyente tenga menos de 36 años y sin que pueda practicarse fuera del plazo de cinco años mediante la acumulación a deducciones pendientes de ejercicios posteriores.

2. Aurreko apartatuan adierazitako zergadunaren adina zehazteko, zergaren sortzapen-data hartuko da kontuan kasu bakoitzean.

2. Para la determinación de la edad del o de la contribuyente señalada en el apartado anterior se atenderá, en cada caso, a la fecha de devengo del Impuesto.

4. A efectos del cálculo de la deducción prevista en los apartados anteriores, de las cantidades satisfechas se restará el importe de las subvenciones que el o la contribuyente hubiere, en su caso, recibido para el alquiler de vivienda que resulten exentas en aplicación de la normativa reguladora de este impuesto.

5. Kapitulu honetan jasotakoaren ondorioetarako, aurreko 2. eta 3. apartatuetan adierazten diren egoerak zehazteko, zerga sortzen den egunean dagoen egoerari begiratuko zaio.

5. A los efectos de lo dispuesto en este Capítulo, para la determinación de las situaciones referidas en los apartados 2 y 3 anteriores, se atenderá a la situación existente a la fecha de devengo del Impuesto.

6. Baterako tributazioa hautatuta, kenkaria aplikatzeko eskubidea duten pertsonak hainbat badira eta pertsona horietako batzuek betetzen badituzte aurreko 2. eta 3. apartatuetan jasotzen diren kenkariaren ehuneko gehituak aplikatzeko baldintzak eta beste batzuek ez, orduan, apartatu horietan ezarritako ehunekoak eta mugak aplikatuko dira.

6. En el supuesto de que se opte por la tributación conjunta, cuando existan varias personas con derecho a aplicar la deducción que cumplan los requisitos para la aplicación de porcentajes incrementados de deducción previstos en los apartados 2 y 3 anteriores y otras que no los cumplan, se aplicarán los porcentajes y límites previstos en dichos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

apartados.

7. Epaileak erabakita, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitzaren alokairua ordaintzeko betebeharra, hark eskubidea izango du aitorpenean aplikatzeko artikulu honetan arautzen den kenkaria. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren aitorpenean egingo da, bakoitzari dagokion proportzioan, artikulu honen 1., 2. eta 3. apartatuetako lehenengo paragrafoak ezarritako ehunekoa eta muga aplikatuta, haietako bakoitzari dagokionaren arabera.

7. En los supuestos en los que, por decisión judicial, se hubiera establecido la obligación de pagar el alquiler de la vivienda familiar a cargo exclusivo del o de la contribuyente, éste tendrá derecho a practicar en su declaración la deducción a que se refiere este artículo. Si tal obligación correspondiera a ambos contribuyentes, la deducción se prorrateará entre ellos y se practicará en la declaración de cada uno en la proporción que corresponda, con el porcentaje y el límite establecidos en el párrafo primero de los apartados 1, 2 y 3 de este artículo según corresponda a cada uno de ellos.

8. Aurreko apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak izango dira erabilera lagatzeko araubideko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, baldin eta ohiko etxebizitzatzat hartzen badira eta kanon-errentok etxebizitza-kooperatibetako edo bestelako elkarte-moduetako bazkideek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteetako bazkideek ordaindu badituzte, betiere hotel-industriari dagozkion zerbitzu osagarriak ematen ez badira; adibidez, jatetxea, arropa garbitzea edo antzeko beste batzuk, edo gizarte-laguntzako edo osasuneko zerbitzuak.

8. A los efectos de lo dispuesto en los apartados anteriores, se asimilarán a las cantidades satisfechas por el alquiler de vivienda habitual, los cánones o rentas sociales abonados por las viviendas en régimen de cesión de uso, que tengan la consideración de vivienda habitual, por los socios y socias de cooperativas de vivienda u otras formas asociativas, o por los asociados de asociaciones sin ánimo de lucro, siempre y cuando no se presten servicios complementarios propios de la industria hotelera, tales como los de restaurante, limpieza, lavado de ropa u otros análogos, o servicios de asistencia social o sanitarios.

Baina ez dira izango ohiko etxebizitzaren

No obstante, no se asimilarán a las cantidades

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak erabilera lagatzeko araubideko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, baldin eta ohikotzat hartzen badira etxebizitza horiek eta erosteko aukera-eskubidea edo jabetza transferitzeko klausula badute; ez eta etxebizitza-kooperatibetako edo bestelako elkarte-moduetako bazkideek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteetako kideek ordaindutako beste kopuru batzuk ere, baldin eta Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badira.

Babes publikoko etxebizitzen sustapenak administrazio publiko baten jabetzako lursailen gaineko azalera-eskubide bat eratzearen bidez gauzatzen badira, erabilera-eskubidearen izaera mugagabea betetzat joko da bazkideen erabilera-eskubidearen iraupena bat badator aipatutako azalera-eskubidearen iraupenarekin.

9. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, zergadunak 85.000 euroko edo zenbateko txikiagoko likidazio-oinarri orokor bat izan beharko du, zeina gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak eta kontribuzioak zenbatu gabe kalkulatuko baita, eta, hala badagokio, zenbateko bereko aurrezkiaren likidazio-oinarri bat.»

satisfechas por el alquiler de vivienda habitual, los cánones o rentas sociales abonados por las viviendas en régimen de cesión de uso, que tengan la consideración de vivienda habitual, que incorporen un derecho de opción de compra o cláusula de transferencia de la propiedad, así como aquellos otros abonados por los socios y socias de cooperativas de vivienda u otras formas asociativas, o por los asociados de asociaciones sin ánimo de lucro, en los que no se cumplan todas las condiciones previstas en la Disposición adicional tercera de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda.

En caso de promociones de viviendas de protección pública realizadas mediante la constitución de un derecho de superficie sobre terrenos propiedad de una Administración pública, el carácter indefinido del derecho de uso se entenderá cumplido cuando la duración del derecho de uso de los asociados sea acorde a la duración del derecho de superficie citado.

9. La aplicación de la deducción prevista en este artículo requerirá que el o la contribuyente tenga una base liquidable general determinada sin computar las aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social y, en su caso, una base liquidable del ahorro, iguales o inferiores a 85.000 euros."

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sei. Berridazten dira 87. artikuluaren 4. apartatua eta 5. apartatuko b) letra, eta 10. apartatua gehitzen da; honela idatzita geratzen dira:

«4. Zergadunak 36 urte baino gutxiago baditu, honako berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan ezarritako ehunekoak 100eko 23koak izango dira.

b) 2. apartatuan ezarritako kenkaria gehienez 1.955 eurokoa izango da urtean. Hala ere, ez da aplikatuko urteko gehieneko kenkariaren muga ohiko etxebizitzaren erosketa formalizatzen den zergaldian.

Aurreko letretan xedatutakoa, b) letraren azken esaldia izan ezik, foru-arau honen 86. artikuluaren 2. apartatuko a) eta b) letretan eta 3. apartatuko b) eta c) letretan adierazten diren zergadunek aplikatuko dute, artikulu honen 5. apartatuko b) letran ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Baterako tributazioa hautatuta, kenkaria aplikatzeko eskubidea duten pertsonak hainbat badira eta pertsona horietako batzuek apartatu honetan ezarritakoaren arabera betetzen badituzte kenkariaren ehuneko gehituak aplikatzeko baldintzak eta beste batzuek ez, orduan, apartatu honetan ezarritako

Seis. Se da nueva redacción al apartado 4 y a la letra b) del apartado 5 y se introduce un nuevo apartado 10 en el artículo 87, que quedan redactados en los siguientes términos:

"4. En los supuestos en que el contribuyente tenga una edad inferior a 36 años se aplicarán las siguientes especialidades:

a) Los porcentajes establecidos en el apartado 1 anterior serán del 23 por 100.

b) La deducción máxima anual establecida en el apartado 2 anterior será de 1.955 euros. No obstante, no será de aplicación el límite de la deducción máxima anual en el periodo impositivo en que se formaliza la adquisición de la vivienda habitual.

Lo dispuesto en las letras anteriores, a excepción del último inciso de la letra b) será de aplicación por las y los contribuyentes a que se refieren las letras a) y b) del apartado 2 y las letras b) y c) del apartado 3 del artículo 86 de esta Norma Foral, salvo en los casos a que se refiere la letra b) del apartado 5 de este artículo.

En el supuesto de que se opte por la tributación conjunta y existan varias personas con derecho a aplicar esta deducción que cumplan los requisitos para la aplicación de porcentajes incrementados de deducción de acuerdo con lo previsto en este apartado y otras que no los cumplan, se aplicarán los porcentajes y el límite

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ehunekoak eta muga aplikatuko dira.»

«b) Erregelamendu bidez ezarritako formalizazio- eta erabilera-baldintzak betetzen dituzten kreditu-entitateetako kontuetan gordailutzen diren kopuruak, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen badira, kontua ireki denetik 6 urte igaro baino lehen.

Hala ere, aurreko paragrafoan ezarritako epea 10 urtekoa izango da kontuaren titularrak 36 urte baino gutxiago badauzka kontua irekitzen duenean.

Ez da urratutzat hartuko erabiltze-baldintza, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten diru-kopuruak berriro osorik sartzen badira kreditu-erakunde berean edo beste kreditu-erakunde batera osorik eramaten badira zergaren sortzapena gertatu baino lehen.

Orobat, ez da urratutzat hartuko etxebizitza-kontuko diru-kopurua ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzeko baldintza, baldin eta zergaduna hiltzen bada letra honetako lehen eta bigarren paragrafoetan adierazitako epeak amaitu aurretik.

Ezin izango da berriro kenkaririk egin letra honetan aipatzen diren kontuetan gordailututako diru-kopuruak direla eta, aurrez kenkarirako eskubidea sortu badute, ohiko

previstos en este apartado"

"b) Las cantidades que se depositen en entidades de crédito, en cuentas que cumplan los requisitos de formalización y disposición que se establezcan reglamentariamente y siempre que las cantidades que hayan generado el derecho a la deducción se destinen, antes del transcurso de 6 años a partir de la fecha de apertura de la cuenta, a la adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual.

No obstante, el plazo previsto en el párrafo anterior será de 10 años cuando el titular de la cuenta, en el momento de su apertura, tenga una edad inferior a 36 años.

Se entenderá que no se incumple el requisito de disposición cuando las cantidades depositadas que hayan generado el derecho a la deducción se repongan o se aporten íntegramente a la misma o a otra entidad de crédito con anterioridad al devengo del Impuesto.

No se entenderá incumplido el requisito del destino del importe de la cuenta vivienda a la adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual en el supuesto de fallecimiento del o de la contribuyente antes de la finalización de los plazos a que se refieren los párrafos primero y segundo de esta letra.

Las cantidades depositadas en las cuentas a que se refiere la presente letra, que hayan generado el derecho a la deducción, no podrán volver a ser objeto de deducción cuando se destinen a la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen direnean.»

"10. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, zergadunak 85.000 euroko edo zenbateko txikiagoko likidazio-oinarri orokor bat izan beharko du, zeina gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak eta kontribuzioak zenbatu gabe kalkulatuko baita, eta, hala badagokio, zenbateko bereko aurrezkiaren likidazio-oinarri bat.»

Zazpi. Berridazten da VII. tituluko IV. kapituluaren titulua; honela idatzita geratzen da:

«IV. KAPITULUA. ETXEBIZITZAGATIKO KENKARIAK»

Zortzi. 87 bis artikulu berria gehitzen zaio VII. tituluko IV. kapituluari; hona testua:

«87 bis artikulua. *Kenkaria babestutako birgaitzeagatik.*

Kapital higiezinaren etekin garbia foru-arau honen 32. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera zehazten duten zergadunek errentamendurako den etxebizitza birgaitzeko ordaindutako kopuruen 100eko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 3.000 euroko mugarekin.

adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual."

"10. La aplicación de la deducción prevista en este artículo requerirá que el o la contribuyente tenga una base liquidable general determinada sin computar las aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social y, en su caso, una base liquidable del ahorro, iguales o inferiores a 85.000 euros."

Siete. Se da nueva redacción al título del Capítulo IV del Título VII, que queda redactado en los siguientes términos:

"CAPÍTULO IV DEDUCCIONES POR VIVIENDA"

Ocho. Se añade un nuevo artículo 87 bis dentro del Capítulo IV del Título VII, con el siguiente contenido:

"Artículo 87 bis. *Deducción por rehabilitación protegida.*

Las y los contribuyentes que determinen el rendimiento neto de capital inmobiliario conforme a lo dispuesto en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 32 de esta Norma Foral, podrán aplicar una deducción del 10 por 100 de las cantidades satisfechas destinadas a la rehabilitación de la vivienda objeto de arrendamiento, con un límite de deducción de 3.000 euros anuales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ondorio horietarako, birgaitzetzat hartuko dira jabeak errentan emandako etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek jarduketa babestu gisa kalifikatu edo deklaratu baditu obra horiek, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera (dekretu hori ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa da), edo babesteko moduko jarduketa gisa kalifikatu badira abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak edo hura ordezkatzen duten antzeko arauek xedatutakoaren arabera.

Orobat, birgaitzetzat hartuko da ohiko etxebizitzan egokitzapenerako egiten diren obra eta instalazioak, bai eta eraikinaren elementu erkideak aldatzeko egiten direnak ere, baldin eta nahitaezko pasabide badira hirilurreko finkaren eta bide publikoaren artean, hala nola eskailerak, igogailuak, pasabideak, atariak edo arkitekturako beste edozein osagai; eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen zentzumenezko komunikaziorako edo haien segurtasunaren sustapenerako oztopoak gainditzeko gailu elektronikoak ezartzeko beharrezko direnak, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.»

Bederatzi. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona testua:

«Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria.

A estos efectos se entenderá por rehabilitación aquellas obras realizadas por la persona propietaria en la vivienda arrendada cuando haya sido dictada resolución calificando o declarando las mismas como actuación protegida en virtud de lo dispuesto en el Decreto del Gobierno Vasco 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado, o en su caso, haya sido calificada como actuación protegible de conformidad con el Real Decreto 2066/2008, de 12 de diciembre, o normas análogas que lo sustituyan.

Asimismo, se entenderá por rehabilitación las obras e instalaciones de adecuación que se efectúen en la vivienda habitual, así como las de modificación de los elementos comunes del edificio que sirvan de paso necesario entre la finca urbana y la vía pública, tales como escaleras, ascensores, pasillos, portales o cualquier otro elemento arquitectónico, o las necesarias para la aplicación de dispositivos electrónicos que sirvan para superar barreras de comunicación sensorial o de promoción de seguridad de los discapacitados o dependientes, en las condiciones previstas reglamentariamente."

Nueve. Se introduce una nueva disposición adicional trigésima novena, con el siguiente contenido:

"Disposición adicional trigésima novena.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ohiko etxebizitza erosteko kontuetan gordailututako zenbatekoak gauzatzeko epea luzatzea, halako kontu bat irekitzen denean 36 urte baino gutxiago dituztenen kasuan.

Ampliación del plazo para la materialización de las cantidades depositadas en cuentas destinadas a la adquisición de vivienda habitual, de aplicación a los menores de 36 años en el momento de apertura de la citada cuenta.

Foru-arau honen 87. artikuluko 5. apartatuaren b) letrako lehen paragrafoan aipatutako etxebizitza-kontua irekitzeko unean zergaduna 36 urtetik beherakoa bada eta 2024ko abenduaren 31n amaitu ez bada manu horretan adierazitako 6 urteko epea, ohiko etxebizitza erosteko gordailututako zenbatekoak gauzatzeko epea 10 urtekoa izango da, kontu hori irekitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Cuando en el momento de la apertura de la cuenta vivienda a la que se refiere el primer párrafo de la letra b) del apartado 5 del artículo 87 de esta Norma Foral, el o la contribuyente fuera menor de 36 años y a 31 de diciembre de 2024 no haya finalizado el plazo de 6 años al que se refieren el citado precepto, el plazo para proceder a la materialización de las cantidades depositadas en la adquisición de la vivienda habitual será de 10 años contados a partir de la fecha de la apertura de la citada cuenta.

Etxebizitza-kontuan aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan gordailututako kopuruek eskubidea emango dute foru-arau honen 87. artikuluan jasotzen den kenkaria aplikatzeko.»

Las cantidades depositadas en la cuenta vivienda en los términos previstos en el párrafo anterior darán derecho a la práctica de la deducción prevista en el artículo 87 de esta Norma Foral."

4. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa.*

Artículo 4. *Modificación de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre Sociedades.*

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako aldaketa hauek egiten zaizkio Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauari:

Con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025, se introduce la siguiente modificación en la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades:

Aldatzen da 32. artikuluaren 2. apartatua;

Se modifica el apartado 2 del artículo 32, que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

honela idatzita geratzen da:

«2. Aurreko apartatuan aipatzen den entitatearen sarreren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluaren 2., 3. eta 4. apartatuetan adierazten diren higiezinetatik lortu diren kapital higiezinaren etekinak baldin badaude, ondare-sozietateek apartatu horietan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute errenta horiei dagokienez.

Halaber, entitatearen sarreren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikuluaren 1. apartatuan adierazten diren ondasun-higiezinen gaineko erabiltze- eta gozatze-eskubideak lagatzetik edo eratzetik eratorritako etekinak badaude, higiezin bakoitzetik lortutako sarrera osoen 100eko 10 jo ahal izango da kengarritzat, bai eta etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatze-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen eta gainerako finantzaketa-gastuen zenbatekoa ere. Zenbateko kengarri bi horien baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

Entitatearen sarreren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru

queda redactado en los siguientes términos:

"2. Cuando entre los ingresos de la entidad a la que se refiere el apartado anterior se encuentren rendimientos del capital inmobiliario procedentes de inmuebles a los que se refieren los apartados 2, 3 y 4 del artículo 32 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, las sociedades patrimoniales podrán aplicar lo dispuesto en los citados preceptos en relación con esas rentas.

Asimismo, en caso de que entre los ingresos de la entidad se encuentren rendimientos procedentes de la cesión o constitución de derechos de uso y disfrute sobre los bienes inmuebles a los que se refiere el apartado 1 del artículo 32 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, podrán considerar deducible un importe equivalente al 10 por 100 de los ingresos íntegros procedentes de cada inmueble y el importe de los intereses de los capitales ajenos invertidos en la adquisición, rehabilitación o mejora de los bienes, derechos o facultades de uso o disfrute de los que procedan los rendimientos, y demás gastos de financiación, sin que la suma de ambos importes deducibles pueda dar lugar, para cada inmueble, a un rendimiento neto negativo.

En caso de que entre los ingresos de la entidad se encuentren rendimientos procedentes de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Arauko 32. artikuluaren 5. apartatuan adierazten diren ondasun-higiezinen gaineko erabiltze- eta gozatze-eskubideak lagatzetik edo eratzetik eratorritako etekinak badaude, higiezin bakoitzetik lortutako sarrera osoen 100eko 30 jo ahal izango da kengarritzat, bai eta etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatze-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen eta gainerako finantzaketa-gastuen zenbatekoa ere. Zenbateko kengarri bi horien baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

Entitatearen sarreren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak badaude, ondare-sozietateek foru-arau horretako 9. artikuluaren 24. zenbakian xedatutakoa aplikatu ahal izango dute errenta horiei dagokienez.

Hala ere, ondare-sozietateek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 66. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute.»

cesión o constitución de derechos de uso y disfrute sobre bienes inmuebles a los que se refiere el apartado 5 del artículo 32 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, podrán considerar deducible un importe equivalente al 30 por 100 de los ingresos íntegros procedentes de cada inmueble y el importe de los intereses de los capitales ajenos invertidos en la adquisición, rehabilitación o mejora de los bienes, derechos o facultades de uso o disfrute de los que procedan los rendimientos, y demás gastos de financiación, sin que la suma de ambos importes deducibles pueda dar lugar, para cada inmueble, a un rendimiento neto negativo.

Cuando entre los ingresos de la entidad se encuentren dividendos y participaciones en beneficios a los que se refieren las letras a) y b) del artículo 34 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, las sociedades patrimoniales podrán aplicar lo dispuesto en el número 24 del artículo 9 de dicha Norma Foral en relación con esas rentas.

No obstante, las sociedades patrimoniales podrán aplicar lo dispuesto en el artículo 66 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas."

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5. artikulua. *Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauaren aldaketa.*

Aldaketa hauek egiten zaizkio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauari:

Bat. Aldatzen da 13. artikuluaren c) letra; honela idatzita geratzen da:

«c) 1.a Honako etxebizitza hauen eskualdaketak 100eko 2,5ean tributatuko du:

- Gehienez 120 metro koadroko azalera eraikia duten etxebizitzak, bai eta aurreko b) letran adierazitako garajeak eta eranskinak ere, eskuratzaile-kopurua edozein dela ere.

- Gehienez 120 metro koadroko azalera eraikia duten familia bakarreko etxeak, zeinen partzelaren azalera (eraikinak hartzen duen zatia barne) ez baita 300 metro koadrotik gorakoa, eskuratzaile-kopurua edozein dela ere.

c) letra honen ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzatzat sarrera independentea duena joko da, eta bakartua, binakakoa, atxikia edo ilarakoa izan daiteke.

Azalera eraikia, berriz, hemen ezarritakoa izango da: hiri- eta/edo landa-izaerako osagaiak

Artículo 5. *Modificación de la Norma Foral 1/2011, de 24 de marzo, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 1/2011, de 24 de marzo, del Impuesto sobre Trasmisiones y Actos Jurídicos Documentados:

Uno. Se modifica la letra c) del artículo 13, con la siguiente redacción:

"c) 1º. Tributarán al 2,5 por 100 las siguientes transmisiones:

- Viviendas cuya superficie construida no sea superior a 120 metros cuadrados, así como sus garajes y anexos a que se refiere la letra b) anterior, con independencia del número de adquirentes.

- Viviendas unifamiliares cuya superficie construida no sea superior a 120 metros cuadrados y la superficie de la parcela, incluida la ocupada por la edificación, no supere los 300 metros cuadrados, con independencia del número de adquirentes.

A efectos de esta letra c), se considerará vivienda unifamiliar aquélla que tiene entrada independiente, bien aislada, pareada, adosada o en hilera.

Se entenderá por superficie construida la establecida en el apartado 2 de la Norma 5 de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dauzkaten ondasun higiezinak zerga-ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoen 5. arauko 2. apartatuan ezarritakoa (arauok uztailaren 2ko 87/2024 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren).

2.a Halaber, honako etxebizitza hauen eskualdaketak 100eko 2,5ean tributatuko du, eskuratzailea familia ugariaren titularra bada:

- Etxebizitzak eta aurreko b) letran adierazitako garajeak eta eranskinak ere, eskuratzaile-kopurua edozein dela ere.

- Familia bakarreko etxebizitzak, eskuratzaile-kopurua edozein dela ere.

Letra honetan jasotako ondorioetarako, negozio-lokalak ez dira hartuko etxebizitzaren eranskintzat, nahiz eta etxebizitzarekin batera eskualdatu.

100eko 2,5eko tasa aplikatzeko, betekizun hauek bete behar dira:

1. Eskuratzailea ez izatea beste etxebizitza baten jabe ehuneko 25etik gorako portzentajean, eskuratu nahi den etxebizitza dagoen udalerriaren barruan.

Baldintza hori ez da urratutzat joko jabea beste etxebizitza baten titularra denean, baldin eta etxebizitza hori bi urteko epean eskualdatzen bada, letra honetan aurreikusitako tasan zergapetu den etxebizitza erosi denetik zenbatzen hasita. Etxebizitza adierazitako bi urteko epean eskualdatzen ez bada, 100eko

las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles con elementos de naturaleza urbana y/o rústica aprobadas por Decreto Foral 87/2024, de 24 de julio.

2º. Asimismo, tributarán al 2,5 por 100 las siguientes transmisiones cuando la persona adquirente sea titular de familia numerosa:

- Viviendas, así como sus garajes y anexos a que se refiere la letra b) anterior, con independencia del número de adquirentes.

- Viviendas unifamiliares, con independencia del número de adquirentes.

A los efectos previstos en esta letra, no tendrán la consideración de anexos a viviendas los locales de negocio, aunque se transmitan conjuntamente con la vivienda.

Para la aplicación del tipo del 2,5 por 100 será preciso reunir los siguientes requisitos:

1. Que la parte adquiriente no sea propietaria de otra vivienda en un porcentaje superior al 25 por ciento dentro del término municipal en que radica la vivienda objeto de adquisición.

No se entenderá incumplido este requisito cuando el o la propietaria sea titular de otra vivienda siempre que ésta sea transmitida en el plazo de dos años desde la adquisición de la vivienda que ha tributado al tipo previsto en esta letra. Cuando la vivienda no se transmita en el plazo de dos años señalado, se perderá el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2,5eko tasa aplikatzeko eskubidea galduko da, eta, orduan, tributu-egoera erregularizatu beharko da, dagozkion berandutze-interesak barne.

2. Etxebizitza eskuratzailearen ohiko etxebizitza legez erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.

Betekizun hori betetzen dela frogatzen duen dokumentazioa etxebizitza eskuratzen denetik hamabi hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da, edo, hala badagokio, aurreko 1. zenbakian jasotako betekizunean aipatzen den etxebizitza eskualdatzeko gehieneko epea igarotzen denetik. Hori egiaztatzeko, zuzenbidean onartuta dauden frogabideak erabil daitezke. Nolanahi ere, preskripzio-epearen barruan egiaztatzen bada etxebizitza ez dela ohiko etxebizitza legez erabiltzen, tasa 100eko 4ra igoko da.

Zergapekoa pertsona fisikoa bada eta jarduera ekonomiko bati afektatuta ez dagoen lokal bat etxebizitzarako gaitzen badu, zerga-administrazioak, aurretik egin zaion eskaerari erantzunez, itzuli egingo du bi kopuru hauen arteko diferentzia: batetik, zerga dela-eta benetan ordaindutako zenbatekoa, eta, bestetik, eskuratutako higiezinari b) eta c) letretan adierazten direnetatik dagokion zerga-

derecho a aplicar el tipo del 2,5 por 100, debiendo proceder a regularizar su situación tributaria incluyendo, asimismo, los intereses de demora correspondientes.

2. Que la vivienda se destine a vivienda habitual del adquirente en los términos a que se refiere la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y sus normas de desarrollo.

La documentación justificativa del cumplimiento de este requisito se deberá presentar en el plazo máximo de doce meses a contar desde la adquisición de la vivienda, o en su caso desde el transcurso del plazo máximo para transmitir la vivienda a que hace referencia el requisito previsto en el número 1 anterior. Para su acreditación podrán utilizarse los medios de prueba admitidos en Derecho. En cualquier caso, si dentro del período de prescripción resultare que la vivienda adquirida no hubiera sido destinada a vivienda habitual el tipo se incrementará al 4 por 100.

Cuando la persona obligada tributaria sea persona física y se trate de la habilitación de un local como vivienda, no estando afecto a una actividad económica, la Administración tributaria, previa solicitud, devolverá la diferencia entre el impuesto efectivamente satisfecho y el importe resultante de aplicar al inmueble adquirido el tipo impositivo que corresponda de entre los señalados en las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

tasa aplikatuz ateratzen den kopurua. Nolanahi ere, tasa hori aplikatzeko ezartzen diren baldintzez gainera, zergapekoak eskualdatzea egin denetik 18 hilabete igaro baino lehen frogatu behar du lokala etxebizitza legez lehenengoz erabiltzeko edo okupatzeko lizentzia daukala. Itzulketa horrek ez du sortuko berandutze-interesik.»

Bi. 46. apartatua gehitzen zaio 58. artikuluari; hona testua:

«46. Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren erabilera egonkor eta iraunkorrerako etxebizitzen errentamenduak.»

letras b) y c), cuando además de cumplirse los requisitos exigidos para la aplicación del mismo, la persona obligada tributaria acredite dentro del plazo de 18 meses a partir de la adquisición, que ha obtenido la licencia de primera utilización u ocupación como vivienda para el referido local. Dicha devolución no devengará intereses de demora."

Dos. Se introduce un nuevo apartado 46 en el artículo 58, con el siguiente contenido:

"46. Los arrendamientos de vivienda para uso estable y permanente a los que se refiere el artículo 2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos."

6. artikulua. *Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren aldaketa.*

Honako aldaketa hau egiten zaio Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauari:

10. apartatua gehitzen zaio 12. artikuluari; hona testua:

«10. 36 urtetik beherako zergadunen alde dirutan egiten diren dohaintzak, haien ezkontideak edo izatezko bikotekideak, aurreko ahaideek, ondorengoek edo hirugarren mailara arteko albo-ahaideek (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremana edo

Artículo 6. *Modificación de la Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.*

Se introduce la siguiente modificación en la Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones:

Se introduce un nuevo apartado 10 en el artículo 12 con el siguiente contenido:

"10. Las donaciones en metálico a favor de contribuyentes con una edad inferior a 36 años, realizadas por su cónyuge o pareja de hecho, ascendientes, descendientes o colaterales de hasta tercer grado, ya tengan su origen en el parentesco, en la consanguinidad, en la afinidad, en la relación que resulte de la constitución de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

adopzioa edo harrera iraunkorra izan daiteke) dohaintza-hartzaileak ohiko etxebizitza jabetzan eskura dezan egiten dituztenak.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko eskubidea ematen duten dohaintzen multzoaren gehieneko zenbatekoa 30.000 euro izango da dohaintza-hartzaile bakoitzeko.

Apartatu honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Zerga honen autolikidazioa aurkeztea foru-arau honen 69.1 artikuluaren hirugarren paragrafoan ezarritako epean; autolikidazioarekin batera, agiri publiko edo pribatu bat aurkeztu beharko da, zeinean berariaz adieraziko baita dohaintzan hartutako zenbatekoa dohaintza-hartzaileak ohiko etxebizitza erosteko erabiliko dela, bai eta eskualdaketa egiaztatzen duen agiria ere.

b) Dohaintza-hartzaileak 2 urteko epean eskuratu behar du etxebizitza, dohaintza-datatik zenbatzen hasita, edo, dohaintza bat baino gehiago badaude, lehenengo dohaintza-datatik zenbatzen hasita.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat joko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 87. artikuluaren 8. apartatuan eta foru-arau hori garatzeko

la pareja de hecho, en la adopción o en acogimiento permanente, con la finalidad de que la persona donataria adquiera una vivienda habitual en propiedad.

El importe máximo del conjunto de las donaciones percibidas con derecho a aplicar lo dispuesto en este apartado por cada persona donataria será de 30.000 euros.

Para aplicar la exención a que se refiere este apartado se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Presentar la autoliquidación por este Impuesto en el plazo previsto en el tercer párrafo del artículo 69. 1 de esta Norma Foral, que deberá acompañarse de documento público o privado en el que se haga constar de forma expresa que el destino del importe donado es la adquisición de la vivienda habitual de la persona donataria, así como del documento acreditativo de la transmisión.

b) La persona donataria debe adquirir la vivienda en el plazo de 2 años a contar desde la fecha de la donación o, si hay donaciones sucesivas, a contar desde la fecha de la primera donación.

A efectos de lo dispuesto en este apartado, se entenderá por vivienda habitual la que cumpla los requisitos establecidos en el apartado 8 del artículo 87 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y en su

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erregelamenduan ezarritakoa betetzen duena.»

7. artikulua. *Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren aldaketa.*

2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketa hau egiten zaio Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauari:

Aldatzen da 10. artikuluaren 5. apartatua; honela idatzita geratzen da:

«5. Ordenantza fiskalek zerga-kuota osoaren 100eko 99ra arteko hobaria arautu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzaren "Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programaren —Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez arautua— eta Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko «ASAP» bitartekaritza-programaren —Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuaren bidez arautua— edo antzeko beste etxebizitza-plan eta -programa autonomiko, foral edo udaleko plan batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinetarako.»

desarrollo reglamentario."

Artículo 7. *Modificación de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.*

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se introduce la siguiente modificación en la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles:

Se modifica el apartado 5 del artículo 10, que queda redactado en los siguientes términos:

"5. Las ordenanzas fiscales podrán regular una bonificación de hasta el 99 por 100 de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles que sean objeto de cesión en programas del Gobierno Vasco en el marco del Programa de Vivienda Vacía "Bizigune", regulado por el Decreto del Gobierno Vasco 466/2013, de 23 de diciembre, del Programa de Intermediación en el Mercado de Alquiler de Vivienda Libre "ASAP", regulado por el Decreto del Gobierno Vasco 144/2019, de 17 de septiembre, o de otros planes y programas de vivienda autonómicos, forales o municipales similares"

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

III. KAPITULUA

GIZARTE-AURREIKUSPENA

8. artikulua. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa.*

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Bat. 38. apartatua gehitzen zaio 9. artikuluari; hona testua:

«38. Foru-arau honen 18. artikuluko a) letran jasotako prestazioak, arau horren 19. artikuluko 2. apartatuaren b) letraren hirugarren paragrafoan eta 70. artikuluan aurreikusitako gertakizunak eta egoerak gertatzeagatik jasotakoak, salbu eta 1., 2. eta 4. zenbakietan ezarritako prestazioak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezko sistema gisa jarduten dutenean, eta 6. zenbakian jasotakoak, errenta gisa jasotzen direnean, Foru Arau honen 37. e) artikuluan aipatzen diren etekinei dagokien zatian.

Zenbaki honetan xedatutakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da eratutako errenta biziartekoa izatea, edo, aldi baterako errenta

CAPÍTULO III

PREVISIÓN SOCIAL

Artículo 8. *Modificación de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

Con efectos desde 1 de enero de 2025, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Uno. Se añade un nuevo número 38 al artículo 9, con el siguiente contenido:

"38. Las prestaciones contempladas en la letra a) del artículo 18 de esta Norma Foral percibidas por el acaecimiento de las contingencias y situaciones previstas en el tercer párrafo de la letra b) del apartado 2 del artículo 19 y en el artículo 70 de la misma, excepto las prestaciones previstas en los números 1º, 2º, 4º, cuando las mutualidades de previsión social actúen como sistemas alternativos al régimen especial de la Seguridad Social de los trabajadores por cuenta propia o autónomos, y 6º, que se perciban en forma de renta, en la parte que se corresponda con los rendimientos a que se refiere el artículo 37. e) de esta Norma Foral.

Para la aplicación de lo previsto en este número será necesario que la renta constituida tenga carácter vitalicio o, en el caso de tratarse de una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bada, gutxienez 15 urteko iraupena izatea.»

renta temporal, ésta tenga una duración mínima de 15 años."

Bi. Aldatzen da 18. artikuluaren a) letrako lehen paragrafoa; honela idatzita geratzen da:

Dos. Se modifica el primer párrafo de la letra a) del artículo 18, que queda redactado como sigue:

«a) Honako prestazio hauek, non eta foru-arau honetan ez zaien beste kalifikazio bat ematen:»

"a) Las siguientes prestaciones, salvo que en esta Norma Foral se les otorgue una calificación distinta:"

Hiru. Berridazten da 19. artikuluko 2. apartatuaren b) letra; honela idatzita geratzen da:

Tres. Se da nueva redacción a la letra b) del apartado 2 del artículo 19, que queda redactada en los siguientes términos:

«b) Foru-arau honen 18.a) artikuluan ezarritako prestazioak —6. zenbakikoak kanpoan utzita— kapital gisa jasotzen badira, jasotako zenbatekoa 100eko 100ean integratuko da.

"b) En el caso de las prestaciones contempladas en la letra a) del artículo 18 de esta Norma Foral, excluidas las previstas en el número 6.º, que se perciban en forma de capital, la integración de la cantidad percibida se realizará al 100 por 100.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, kapital gisa jasotako zenbatekoa, Foru arau honen 37. e) artikuluan aurreikusitako etekinei ez dagokiena, 100eko 60an integratuko da, kontingentzia bakoitzagatik jasotzen den lehenengo prestazioa bada, betiere bi urte baino gehiago igaro badira lehenengo ekarpena egin zenetik. Bi urteko epea ez da eskatuko baliaezintasuna edo mendekotasuna dela eta jasotzen diren prestazioetan.

No obstante lo previsto en el párrafo anterior, la cantidad percibida en forma de capital que no se corresponda con los rendimientos previstos en el artículo 37. e) de esta Norma Foral se integrará al 60 por 100 en el supuesto de primera prestación que se perciba por cada una de las diferentes contingencias, siempre que hayan transcurrido más de dos años desde la primera aportación. El plazo de dos años no resultará exigible en el caso de prestaciones por invalidez o dependencia.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie

Lo dispuesto en el párrafo anterior no será de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aplikatuko 18.a) artikuluko 1., 2. eta 4. zenbakietan adierazitako prestazioei, zeinak kapital gisa jaso baitira, kasu horretan gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide bereziaren ordezko sistema gisa jarduten badute. Kasu horietan, aurreko a) letran aurreikusitakoaren arabera ordainduko da zerga.

Letra honetan ezarritako tratamendua gaixotasun larriaren eta iraupen luzeko langabeziaren kasuetan jasotako zenbatekoei ere aplikatuko zaie, bai eta eskubide ekonomikoen edo eskubide kontsolidatuen erreskatearen edo borondatezko edo nahitaezko bajaren kasuetan jasotakoei ere.

Letra honetan ezarritako ondorioetarako, zergaldi berean kapital gisa jaso diren kopuruen batura hartuko da jasotako lehenengo kopurutzat.»

Lau. e) letra gehitzen zaio 37. artikuluari; hona testua:

«e) Foru-arau honen 18. artikuluaren a) letran adierazitako prestazioak jasotzean agerian jartzen den gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta enpresa kontribuzioetatik zuzenean eratorritako etekin positiboak, salbu eta 1., 2., 4. zenbakietako prestazioak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako

aplicación a las prestaciones percibidas en forma de capital contempladas en el artículo 18 a), números 1º, 2º, 4º, cuando en este caso las mutualidades de previsión social actúen como sistemas alternativos al régimen especial de la Seguridad Social de los trabajadores por cuenta propia o autónomos. En tales casos se tributará de acuerdo con lo previsto en la letra a) anterior.

El tratamiento establecido en esta letra será también de aplicación a las cantidades percibidas en los supuestos de enfermedad grave y desempleo de larga duración, así como en los de rescate de derechos económicos o derechos consolidados o de baja voluntaria o forzosa.

A los efectos previstos en esta letra se entenderá por primera cantidad percibida el conjunto de las cuantías percibidas en forma de capital en el mismo período impositivo."

Cuatro. Se añade una letra e) al artículo 37 con el siguiente contenido.

a) 3.000 euro edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 30.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean, arestian adierazitakoaren ordez, 4.000 euro aplikatuko dira, edo zergadunak erabilitako amortizazio-portzentajea bider 40.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

b) 30.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzen duten parte proportzionala, baldin eta zenbateko hori handiagoa bada, ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuei dagokienez.

Aurreko a) letrako bigarren paragrafoan

relevante y habitual para la obtención de los ingresos, será deducible el 50 por 100 de los citados gastos respecto a un único vehículo con los límites siguientes:

a) La cantidad de 3.000 euros o el 50 por 100 del importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por el o la contribuyente por 30.000 euros, si es un importe menor y el elemento patrimonial es objeto de amortización, en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación.

Si se trata de vehículos eléctricos de batería (BEV) o vehículos eléctricos de autonomía extendida (REEV) o vehículos eléctricos de células de combustible (FCV) o vehículos eléctricos híbridos de células de combustible (FCHV), en lugar de lo señalado anteriormente, se aplicará la cantidad de 4.000 euros o el 50 por 100 del importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por la persona contribuyente por 40.000 euros, si es un importe menor y el elemento patrimonial es objeto de amortización, en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación.

b) La parte proporcional que represente la cantidad de 30.000 euros respecto al precio de adquisición del vehículo, cuando éste sea superior, en relación con los gastos financieros derivados de la adquisición de los mencionados vehículos.

Si se trata de vehículos a los que se refiere el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aipatutako ibilgailuak badira, 40.000 euro aplikatuko dira.

c) 3.600 euro gainerako kontzeptuak direla eta, elementuon erabilerarekin lotuta badaude, ibilgailu eta urte bakoitzeko edozelan ere».

Hiru. Zergadunak modu sinesgarrian frogatzen duenean ibilgailua esklusiboki afektatu zaiola beraren jarduera ekonomikoari, gastu horiek kengarriak izango dira, baina honako muga hauekin:

a) 6.000 euro edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 30.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean, arestian adierazitakoaren ordez, 8.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio-portzentajea bider 40.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

b) 30.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-

segundo párrafo de la letra a) anterior se aplicará la cantidad de 40.000 euros.

c) La cantidad de 3.600 euros por los demás conceptos relacionados con su utilización, por vehículo y año en todos los casos."

Tres. Cuando la persona contribuyente pruebe de forma fehaciente la afectación exclusiva del vehículo al desarrollo de su actividad económica, serán deducibles dichos gastos con los siguientes límites:

a) la cantidad de 6.000 euros o el importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por la persona contribuyente por 30.000 euros, si es un importe menor y el elemento patrimonial es objeto de amortización, en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación.

Si se trata de vehículos eléctricos de batería (BEV) o vehículos eléctricos de autonomía extendida (REEV) o vehículos eléctricos de células de combustible (FCV) o vehículos eléctricos híbridos de células de combustible (FCHV), en lugar de lo señalado anteriormente, se aplicará la cantidad de 8.000 euros o el importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por la persona contribuyente por 40.000 euros, si es un importe menor y el elemento patrimonial es objeto de amortización, en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación.

b) la parte proporcional que represente la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

prezioan ordezkatzen duten parte proportzionala, baldin eta zenbateko hori handiagoa bada, ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuei dagokienez.

cantidad de 30.000 euros respecto al precio de adquisición del vehículo, cuando éste sea superior, en relación con los gastos financieros derivados de la adquisición de los mencionados vehículos.

Apartatu honetan a) letrako bigarren paragrafoan aipatzen diren ibilgailuak badira, 40.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzen duten partea aplikatuko da, baldin eta zenbateko hori handiagoa bada.

Si se trata de vehículos a los que se refiere el segundo párrafo de la letra a) de este apartado se aplicará la parte que represente la cantidad de 40.000 euros respecto al precio de adquisición del vehículo, cuando éste sea superior.

c) 7.200 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik.

c) 7.200 euros por los demás conceptos relacionados con su utilización.

Zergadunak ez badu urteko aldi batean ibilgailu hori erabiltzen, erabili duen denboraren arabera kalkulatuko dira erregela honetan aipaturiko mugak».

Si el vehículo no hubiera sido utilizado por el o la contribuyente durante una parte del año, los límites señalados en la presente regla se calcularán proporcionalmente al tiempo de utilización."

Hiru. Berridazten da 60. artikuluaren 2. apartatuko b) letra; honela idatzita geratzen da:

Tres. Se da nueva redacción a la letra b) del apartado 2 del artículo 60, que queda redactada en los siguientes términos:

«b) Pertsona edo entitate ordaintzailearen jabetzako automobilak eta haien erremolkeak, motorrak, motozikletak, laketontziak edo itsas kiroletako ontziak zein aireontziak erabili edo ematen diren kasuetan:

"b) En el caso de la utilización o entrega de vehículos automóviles de turismo y sus remolques, de ciclomotores y motocicletas, de embarcaciones o buques de recreo o de deportes náuticos y de aeronaves, propiedad de la persona o entidad pagadora:

- Ibilgailua eman egiten bada, ibilgailu horren eskurapen-kostua hartuko da, eragiketa kargatzen duten tributuak barne.

- En el supuesto de entrega, el coste de adquisición para la persona o entidad pagadora, incluidos los tributos que graven la operación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Ibilgailua erabili egiten bada, aurreko paragrafoan aipatzen den kostuaren 100eko 20 hartuko da urteko.

- En el supuesto de uso, el 20 por 100 anual del coste a que se refiere el párrafo anterior.

Erabilerari dagokion balorazioa ehuneko 30 murriztu ahal izango da ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean.

La valoración resultante en el supuesto de uso se podrá reducir en un 30 por ciento cuando se trate de vehículos eléctricos de batería (BEV) o vehículos eléctricos de autonomía extendida (REEV) o vehículos eléctricos de células de combustible (FCV) o vehículos eléctricos híbridos de células de combustible (FCHV).

- Ibilgailua erabili eta, horren ondoren, eman egiten bada, azken horren balorazioa aurreko erabileraren ondorioz ateratzen den balorazioa kontuan hartuz egingo da.

- En el supuesto de uso y posterior entrega, la valoración de esta última se efectuará teniendo en cuenta la valoración resultante del uso anterior.

Ordaintzailearen jabetzakoak ez diren garraiobideak erabiliz gero, ordaintzaileari dakarkioten kostua hartuko da kontuan, tributuak eta gastuak barne.

En el caso de la utilización de los medios de transporte señalados que no sean propiedad del pagador, por el coste que supongan para éste, tributos y gastos incluidos.

Aurreko paragrafoan ezarritako balorazioa ehuneko 30 murriztu ahal izango da ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean.

La valoración prevista en el párrafo anterior se podrá reducir en un 30 por ciento cuando se trate de vehículos eléctricos de batería (BEV) o vehículos eléctricos de autonomía extendida (REEV) o vehículos eléctricos de células de combustible (FCV) o vehículos eléctricos híbridos de células de combustible (FCHV).

Goian aipaturiko kasu guztietan, pertsona edo entitate ordaintzaileak ordaintzen dituenean ibilgailua erabiltzeari berez dagozkion gastuak (hala nola konponketak, erregaia, aparkalekua eta ordainpeko autobideak), horrek guztiak ordaintzaileari dakarkion kostua hartuko da

En cualquiera de los supuestos anteriores, cuando la persona o entidad pagadora satisfaga los gastos inherentes a la utilización del vehículo, tales como, reparaciones, combustible, servicio de aparcamiento y utilización de autopistas de peaje, el coste que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kontuan.

Ibilgailua lanerako zein helburu partikularretarako erabiltzen denean, gauzazko ordainketaren balorazioa izango da letra honetan jasotako erregelak dena delako kasuari aplikatu ondoren ateratzen den emaitzaren 100eko 50».

supongan para éste.

Cuando la utilización del vehículo se destine para fines particulares y laborales, la retribución en especie se estimará en un 50 por 100 de la suma de la valoración resultante de la aplicación de las reglas establecidas en esta letra."

Lau. VI ter kapitulua gehitzen zaio VII. tituluari; hona testua:

Cuatro. Se introduce un nuevo Capítulo VI ter dentro del Título VII, con el siguiente contenido:

«VI TER KAPITULUA. KENKARIAK MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN, EFIZIENTZIAREN ETA ENERGIA-TRANTSIZIOAREN ESPARRUAN.

"CAPITULO VI TER. DEDUCCIONES EN EL ÁMBITO DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE, LA EFICIENCIA Y LA TRANSICIÓN ENERGETICA.

91 quater artikulua. *Kenkaria etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko eta energia berriztagarriak integratzeko obrak egiteagatik.*

Artículo 91 quater. *Deducción por obras de mejora de la eficiencia energética e integración de energías renovables en las viviendas.*

1. Zergadunek obra eta/edo instalazio hauengatik ordaindutako zenbatekoen 100eko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute:

1. Los y las contribuyentes podrán aplicar una deducción del 15 por 100 de las cantidades satisfechas por las siguientes obras y/o instalaciones:

a) Bere ohiko etxebizitzan edo une horretan errentan emanda daukan bere titulartasuneko beste edozein etxebizitzatan berokuntza- eta hozte-eskaria murrizteko egindako obrak, Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

a) Obras realizadas para la reducción de la demanda de calefacción y refrigeración en su vivienda habitual o en cualquier otra vivienda de su titularidad que tuviera arrendada en ese momento, según lo establecido en el artículo 2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.

b) Ohiko etxebizitzan edo une horretan

b) Obras realizadas para la mejora en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

errentan emanda daukan bere titulartasuneko beste edozein etxebizitzatan energia primario berriztaezinaren kontsumoa hobetzeko egindako obrak, Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

consumo de energía primaria no renovable de su vivienda habitual o de cualquier otra vivienda de su titularidad que tuviera arrendada en ese momento, según lo establecido en el artículo 2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.

c) Nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetan energia-efizientzia hobetzeko egindako energia-birgaikuntzako obrak, baldin eta eraikin horietan zergaduna etxebizitza baten jabe bada, dela ohiko etxebizitza, dela une horretan errenta emanda daukan etxebizitza bat, Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Obras de rehabilitación energética llevadas a cabo con el objetivo de obtener mejora de la eficiencia energética de edificios de uso predominante residencial, en los cuales la o el contribuyente sea propietario de una vivienda, que constituya su vivienda habitual o que tuviera arrendada en ese momento, según lo establecido en el artículo 2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.

2. Kenkari horren ondorioetarako, honako obra eta instalazio hauek bakarrik hartuko dira kontuan:

2. A efectos de esta deducción, se consideran únicamente las siguientes obras e instalaciones:

a) Energia berriztagarriak erabiltzea ahalbidetzen duten sorkuntza-ekipo hauek instalatzea:

a') Biomasa-galdarak, eraikinaren edo etxebizitzaren bero-eskariari (berokuntza eta etxeko ur beroa) erantzuteko.

b') Aerotermia-, hidrotermia- eta geotermia-sistemak eraikinaren edo etxebizitzaren bero-eskariari (berokuntza eta etxeko ur beroa) erantzuteko.

a) La instalación de los siguientes equipos de generación que permitan la utilización de energías renovables:

a') Calderas de biomasa para cubrir demanda térmica (calefacción y agua caliente sanitaria) del edificio o vivienda.

b') Sistemas de aerotermia, hidrotermia y geotermia para cubrir demanda térmica (calefacción y agua caliente sanitaria del edificio o vivienda).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c') Eguzki-instalazio fotovoltaikoak eraikinaren edo etxebizitzaren autokontsumorako, dela banakakoa, dela partekatua.

d') Eguzki-instalazio termikoak eraikinaren edo etxebizitzaren etxeko ur beroaren eskariari erantzuteko.

Aurreko letretan aipatutako ekipoen instalazioarekin parekatuko da entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratzea, bazkide, akziodun, elkartekide, partaide edo antzeko gisa, baldin eta entitateon helburu soziala bada, nagusiki, baliabide berriztagarrietatik energia termikoa eta/edo elektrikoa sortzen laguntzen duten proiektuak egikaritzea, aipatutako ekipoetan inbertsioak eginez. Tresna horiek bai entitatea eratzen den unean, bai eratu eta hurrengo bost urteetan egindako kapital-gehikuntza batean harpidetu beharko dira.

Zergadunaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza ezin izango da entitatearen kapital sozialaren edo haren boto-eskubideen 100eko 10 baino handiagoa izan. Zergaduna familia-unitate batean integratuta dagoenean, muga hori aplikatzeko, familia-unitateko kide guztien partaidetzak hartuko dira kontuan.

c') Instalaciones solares fotovoltaicas para autoconsumo, ya sea individual o compartido, del edificio o vivienda.

d') Instalaciones solares térmicas para cubrir la demanda de agua caliente sanitaria del edificio o vivienda.

Se asimilará a la instalación de los equipos a que se refieren las letras anteriores, la adquisición de acciones, participaciones o cualesquiera otros instrumentos que supongan la participación en fondos propios de entidades en su condición de persona socia, accionista, asociada, partícipe o similar, de entidades cuyo objeto social consista, principalmente, en la ejecución de proyectos que procuren la generación de energía térmica y/o eléctrica a partir de recursos renovables mediante la realización de inversiones en los mencionados equipos. Los citados instrumentos deberán suscribirse, bien en el momento de la constitución de aquélla, bien en una ampliación de capital efectuada en los cinco años siguientes a dicha constitución.

La participación directa o indirecta de la o del contribuyente no podrá ser superior al 10 por 100 del capital social de la entidad o de sus derechos de voto. Cuando la o el contribuyente esté integrado en una unidad familiar, a los efectos de la aplicación de este límite, se considerarán las participaciones de todos los miembros de la misma.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Eraikin osoan egindako banakako edo taldeko jarduketen bidez etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzea helburu duten proiektuak, baldin eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa gutxienez 100eko 30 murriztea badakarte, edo, bestela, etxebizitzaren edo eraikinaren energia-kalifikazioa hobetzea helburu duten proiektuak, «A» edo «B» motako energia-maila lortzeko.

3. Kenkariaren oinarrian artikulu honen 2. paragrafoan aipatutako obra eta instalazioengatik ordaindutako kopuruak sartuko dira.

Ondorio horietarako, obra eta instalazioengatik ordaindutako kopurutzat hartuko dira haiek egikaritzeko beharrezkoak direnak, barne direla zerbitzu-sariak, proiektu teknikoak idazteko kostuak, obra-zuzendaritza, obrak edo instalazioak egikaritzeko kostua, ekipo eta materialetan egindako inbertsioa eta haiek garatzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk, bai eta energia-efizientziaren ziurtagiriak ematea ere. Berebat, kenkariaren oinarrian sartuko dira entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratzeko ordaindutako kopuruak, aurreko 2. apartatuaren a) letrako azken bi paragrafoetan aipatutakoaren arabera. Nolanahi ere, kopuru horietan ez dira kontuan hartuko jatorri fosileko erregaiak erabiltzen dituzten instalazioetan ekipoak instalatzeko edo

b) Proyectos cuyo objetivo sea la mejora de la eficiencia energética de la vivienda a través de actuaciones individuales o colectivas en edificio completo, que supongan una reducción, como mínimo, de un 30 por 100 del consumo de energía primaria no renovable, o bien, la mejora de la calificación energética de la vivienda o del edificio para obtener una clase energética «A» o «B».

3. La base de la deducción comprenderá las cantidades satisfechas por las obras e instalaciones a las que se refiere el apartado 2 de este artículo.

A estos efectos, se considerarán como cantidades satisfechas por las obras e instalaciones aquellas necesarias para su ejecución, incluyendo los honorarios profesionales, costes de redacción de proyectos técnicos, dirección de obras, coste de ejecución de obras o instalaciones, inversión en equipos y materiales y otros gastos necesarios para su desarrollo, así como la emisión de los correspondientes certificados de eficiencia energética. Así mismo, se incluirán en la base de deducción las cantidades desembolsadas para la adquisición de acciones, participaciones o cualesquiera otros instrumentos que supongan la participación en fondos propios de entidades a la que se refieren los dos últimos párrafos de la letra a) del apartado 2 anterior. En todo caso, no se considerarán en dichas cantidades los costes relativos a la instalación o sustitución de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ordezteko kostuak.

Jabeen erkidego batek egindako obren kasuan, zergadun bakoitzaren kenkariaren oinarria osatuko duen zenbatekoa kalkulatzeko, zergadunak erkidego horretan duen partaidetza-koefizientea aplikatuko zaie jabeen erkidegoak ordaindutako kopuruei (aurreko paragrafoan aipatuak).

Urteko gehieneko oinarri kengarria 20.000 euro izango da.

Laguntza publikoen programa baten bidez dirulaguntzak jaso direnean edo jasotzeko daudenean, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudiaren arabera, aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren ondorioz ateratzen den oinarri kengarriari dirulaguntza horien zenbatekoa kenduko zaio.

4. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira.

5. Kenkari hori bateraezina da, inbertitutako kopuru berberei dagokienez, foru-arau honen 87. artikuluan jasotako kenkariarekin.

equipos en instalaciones que utilicen combustibles de origen fósil.

Tratándose de obras llevadas a cabo por una comunidad de propietarios y propietarias la cuantía susceptible de formar la base de la deducción de cada contribuyente vendrá determinada por el resultado de aplicar a las cantidades satisfechas por la comunidad de propietarios y propietarias, a las que se refiere el párrafo anterior, el coeficiente de participación que el o la contribuyente tuviese en la misma.

La base máxima anual deducible será de 20.000 euros.

Cuando se hubieran recibido o se fueran a recibir subvenciones a través de un programa de ayudas públicas que resulten exentas en aplicación de la normativa reguladora de este impuesto, la base deducible que resulte de lo previsto en los párrafos anteriores se reducirá en el importe de dichas subvenciones.

4. Las deducciones no aplicadas por insuficiencia de cuota íntegra podrán aplicarse en las declaraciones de los períodos impositivos que concluyan en los cinco años inmediatos y sucesivos.

5. Esta deducción es incompatible sobre las mismas cantidades invertidas con la deducción prevista en el artículo 87 de esta Norma Foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. Artikulu honetan jasotako kenkariak aplikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Artikulu honetako 2. apartatuaren a) letran aipatutako sorkuntza-ekipoak instalatuz gero, zergadunaren erantzukizunpeko adierazpena, zeinean jasoko baita instalatutako ekipoaren deskribapen zehatza, instalatzailearen ziurtagiriarekin batera eta, hala badagokio, instalazioa organo eskudunean erregistratu izanaren ziurtagiriarekin batera.

Eraikinaren edo etxebizitzaren autokontsumorako (banakakoa edo partekatua) eguzki-instalazio fotovoltaikoei dagokienez, aurrekoez gainera, instalazio elektrikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren arabera (edozein motatako instalazio elektrikoetan), enpresa instalatzaileak emana eta organo eskudunak bideratua, bai eta sorkuntza-elementuak zerbitzuan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena ere, organo eskudunaren zigiluarekin.

Helburu nagusitzat 2.a) apartatuan jasotako instalazioen bidez baliabide berriztagarrietatik energia termikoa eta/edo elektrikoa sortzea duten entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratuz gero, kenkaria egiaztatzeko, entitateak berak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinean

6. Para la práctica de las deducciones previstas en este artículo se deberá aportar la siguiente documentación:

a) En el caso de instalación de equipos de generación previstos en la letra a) del apartado 2 de este artículo, una declaración responsable del o de la contribuyente en la que conste de forma detallada la descripción del equipo instalado, junto con el certificado del instalador correspondiente y, en su caso, del registro de la instalación ante el órgano competente.

Cuando se trate de instalaciones solares fotovoltaicas para autoconsumo, ya sea individual o compartido, del edificio o vivienda, se deberá incluir además, Certificado de Instalación Eléctrica (CIE), de acuerdo con el Reglamento electrotécnico de baja tensión (en instalaciones eléctricas de cualquier tipología), emitido por la empresa instaladora y diligenciado por el órgano competente, así como la Declaración responsable de puesta en servicio de elementos de generación con sello del órgano competente.

En el caso de adquisición de acciones, participaciones o cualesquiera otros instrumentos que supongan la participación en fondos propios de entidades que tengan por objeto fundamental la generación de energía térmica y/o eléctrica a partir de recursos renovables mediante la instalaciones previstas en el apartado 2.a), la deducción se acreditará

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

adieraziko baita bai entitateak berak, bai akzioak edo partaidetzak eskuratu dituen pertsonak baldintzak betetzen dituztela, eta, gainera, entitatearen beraren eguzki-instalazio fotovoltaikoek energia elektrikoaren autokontsumoaren administrazio-erregistroan duten inskripzioaren identifikazioa erantsiko da, edo, hala badagokio, aipatutako erantzukizunpeko adierazpena.

mediante certificación emitida por la propia entidad del cumplimiento tanto por parte de la propia entidad como por parte de la persona adquiriente de las acciones o participaciones, de las condiciones exigidas, adjuntando además la identificación de la inscripción en el registro administrativo de autoconsumo de energía eléctrica de las instalaciones solares fotovoltaicas de la propia entidad, o en su caso, la declaración responsable mencionada.

b) Artikulu honetako 2. apartatuaren b) letran aurreikusitako proiektuen kasuan, etxebizitzaren edo eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriak, teknikari eskudunek emanak proiektuak egin aurretik eta ondoren, letra horretan jasotako betekizunak egiaztatzeko.

b) En el caso de los proyectos previstos en la letra b) del apartado 2 de este artículo, certificados de eficiencia energética de la vivienda o del edificio, expedidos por personal técnico competente antes y después de la realización de aquéllos, que acrediten los requisitos previstos en la citada letra.

Energia-efizientziaren ziurtagiriek Eraikinen Energia-efizientzia Ziurtatzeko Oinarrizko Prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emanak eta erregistratuak izan beharko dute.

Los certificados de eficiencia energética deberán haber sido expedidos y registrados con arreglo a lo dispuesto en el Real Decreto 390/2021, de 1 de junio, por el que se aprueba el procedimiento básico para la certificación de la eficiencia energética de los edificios.

Kenkari hori aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko, baliozkoak izango dira obrak hasi aurretik emandako ziurtagiriak, baldin eta bi urte igaro ez badira ziurtagiriak eman ziren egunetik obrak hasi arte.

A los efectos de acreditar el cumplimiento de los requisitos exigidos para la práctica de esta deducción serán válidos los certificados expedidos antes del inicio de las obras siempre que no hubiera transcurrido un plazo de dos años entre la fecha de su expedición y la del inicio de estas.

c) Artikulu honetan aurreikusitako obretan

c) Las facturas correspondientes a las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

inbertituriko kopuruei dagozkien fakturak.

Helburu nagusitzat 2.a) apartatuan jasotako instalazioen bidez baliabide berriztagarrietatik energia termikoa eta/edo elektrikoa sortzea duten entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratuz gero, haiek harpidetzeko ordaindutako kopuruen frogagiriak.

7. Ez du kenkari hori aplikatzeko eskubiderik emango artikulu honen 2. apartatuan aurreikusitako ekipo eta entitateetan inbertitutako kopuruek, jarduera ekonomikoak egiteko erabiltzen badira, ezta etxebizitzan jarduera ekonomikoei afektatuta dagoen partean egindako obrek ere.

8. Artikulu honen 3. apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe, kenkaria zergaldian aplikatzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen direla frogatzen denean egingo da:

- baldin eta zergaldi horretan, energia berriztagarriak sortzeko edo erabiltzeko ekipoak eskuratu ondoren, dagozkion ziurtagiriak lortu badira, edo entitateen funts propioetako akzioak edo partaidetzak eskuratu badira, 2. apartatuaren a) letran aurreikusitako kasuetan.

cantidades invertidas en las obras previstas en este artículo.

En el caso de adquisición de acciones, participaciones o cualesquiera otros instrumentos que supongan la participación en fondos propios de entidades que tengan por objeto fundamental la generación de energía térmica y/o eléctrica a partir de recursos renovables mediante las instalaciones previstas en el apartado 2.a), justificación documental de las cantidades satisfechas para la suscripción de las mismas.

7. No dará derecho a practicar esta deducción las cantidades invertidas en equipos y entidades previstas en el apartado 2 de este artículo, utilizadas para el desarrollo de actividades económicas, ni las obras realizadas en la parte de la vivienda afecta a actividades económicas.

8. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 3 de este artículo, la deducción se practicará cuando se acredite que se cumplen todos los requisitos establecidos para su aplicación en el período impositivo:

- en el que habiéndose adquirido los equipos de generación o utilización de energías renovables, se disponga de los certificados correspondientes o en el que se adquieran las acciones o participaciones en fondos propios de entidades, en los supuestos previstos en la letra a) del apartado 2.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- baldin eta zergaldi horretan energia-efizientziaren ziurtagiria eman bada, 2. apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuetan.

- en el que se expida el certificado de eficiencia energética, en los supuestos previstos en la letra b) del apartado 2.

91 quinquies artikulua. *Kenkaria ingurumena errespetatzen duten ibilgailu jakin batzuk eskuratzeagatik*

Artículo 91 quinquies. *Deducción por la adquisición de determinados vehículos respetuosos con el medio ambiente*

1. Zergadunek ibilgailu berri baten eskurapen-balioaren 100eko 5 kendu ahal izango dute, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

1. Las y los contribuyentes podrán deducir el 5 por 100 del valor de adquisición de un vehículo nuevo que reúna los siguientes requisitos:

1) Ibilgailuak kategoria hauetakoren batekoak izango dira:

1.º) Los vehículos deberán pertenecer a alguna de las categorías siguientes:

a) M1 turismoak: gutxienez lau gurpil dituzten ibilgailu motordunak, bidaiariak garraiatzeko diseinatuak eta fabrikatuak, gidariaren eserlekuaz gain gehienez zortzi plaza dituztenak.

a) Turismos M1: Vehículos de motor con al menos cuatro ruedas diseñados y fabricados para el transporte de pasajeros y pasajeras, que tengan, además del asiento de la persona conductora, ocho plazas como máximo.

b) L6e kuadriziklo arinak: kuadriziklo arinak, 425 kg-ko edo gutxiagoko tara dutenak, baterien masa kenduta, eta, fabrikazioz, gehienez 45 km/h-ko edo gutxiagoko abiadura hartzen dutenak eta gehienez 6 kW-eko edo gutxiagoko potentzia dutenak.

b) Cuadriciclos ligeros L6e: Cuadriciclos ligeros cuya masa en vacío sea inferior o igual a 425 kg, no incluida la masa de las baterías, cuya velocidad máxima por construcción sea inferior o igual a 45 km/h, y potencia máxima inferior o igual a 6 kW.

c) L7e kuadriziklo astunak: lau gurpileko ibilgailuak, 450 kg-ko edo gutxiagoko abiada-masa dutenak (baterien pisua kenduta) bidaiariak garraiatzeko ibilgailuen kasuan, eta 600 kg-ko edo gutxiagokoa salgaiak garraiatzeko ibilgailuen kasuan, baldin eta kuadriziklo arintzat sailkatu ezin badira.

c) Cuadriciclos pesados L7e: Vehículos de cuatro ruedas, con una masa en orden de marcha (no incluido el peso de las baterías) inferior o igual a 450 kg en el caso de transporte de pasajeras y pasajeros y a 600 kg en el caso de transporte de mercancías, y que no puedan clasificarse como cuadriciclos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ligeros.

d) L3e, L4e, L5e motozikletak: bi gurpileko ibilgailuak, edo ibilgailuaren luzetarako erdiko ardatzarekiko simetrikoak edo asimetrikoak diren hiru gurpil dituztenak, 50 cm^3 baino gehiagokoak direnak edo 50 km/h-tik gorako abiadura dutenak, baldin eta ibilgailuaren pisu gordina gehienez tona bat bada.

d) Motocicletas L3e, L4e, L5e: Vehículos con dos ruedas, o con tres ruedas simétricas o asimétricas con respecto al eje medio longitudinal del vehículo, de más de 50 cm^3 o velocidad mayor a 50 km/h y cuyo peso bruto vehicular no exceda de una tonelada.

2) Ibilgailuen modeloek Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) ibilgailuen datu-basean jasota egon beharko dute, eta honako baldintza hauek bete:

2.º) Los modelos de los vehículos deberán figurar en la Base de Vehículos del Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía IDAE, y cumplir los siguientes requisitos:

a) M1 kategoriako ibilgailuek mota hauetakoren batekoak izan behar dute:

a) Para los vehículos pertenecientes a la categoría M1 se exige la pertenencia a alguno de los siguientes tipos:

i. Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), motor elektrikoen bidez erabat eta esklusiboki bultzatuak. Motor elektriko horiek baterien elektrizitatetik lortzen dute energia, partzialki edo osorik, eta, bateria horiek berriz kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia erabiltzen da; adibidez, sare elektrikoarena.

i. Vehículos eléctricos de batería (BEV), propulsados total y exclusivamente mediante motores eléctricos cuya energía procede, parcial o totalmente, de la electricidad de sus baterías, utilizando para su recarga la energía de una fuente exterior al vehículo, por ejemplo, la red eléctrica.

ii. Autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), motor elektrikoen bidez erabat eta esklusiboki bultzatuak. Motor elektriko horiek baterien elektrizitatetik lortzen dute energia, partzialki edo osorik. Bateria horiek berriz kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia erabiltzen da, eta, horrez gain, gasolinazko edo gasoliozko barne-errekuntzako

ii. Vehículos eléctricos de autonomía extendida (REEV), propulsados total y exclusivamente mediante motores eléctricos cuya energía procede, parcial o totalmente, de la electricidad de sus baterías, utilizando para su recarga la energía de una fuente exterior al vehículo y que incorporan motor de combustión interna de gasolina o gasóleo para la recarga de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

motorra ere badute bateriok berriz kargatzeko.

iii. Erregai-piladun ibilgailu elektrikoa (EPIE): ibilgailu elektrikoa, ibilgailu barruko hidrogenoa baliatzen duen erregai-pila baten bidez sortutako energia elektrikoa besterik erabiltzen ez duena.

iv. Erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (EPIEH): erregai-piladun ibilgailu elektrikoa, bateria elektriko kargagarriak ere badituena.

b) L kategoriako ibilgailuetarako honako hau eskatzen da:

i. Motor elektrikoek soilik bultzatuak izatea eta ibilgailu elektriko gisa homologatuta egotea.

ii. Motozikleta elektriko berriek (L3e, L4e eta L5e kategoriakoak) litiozko bateriak izan behar dituzte, motorraren potentzia 3 kW-ekoa edo handiagoa duten motor elektrikoak, eta gutxienez 70 km-ko autonomia.

3) Ibilgailuak ezin izango dira ezein jarduera ekonomikori afektatuta egon.

4) Lehen aldiz Espainian matrikulatuak izan beharko dute, zergadunaren izenean.

2. Aurreko paragrafoan jasotako kenkaria eskurapen-balioaren 100eko 10 izango da, zergadunak bere titulartasuneko ibilgailu bat txatartegira eraman duenean, erregelamenduz

mismas.

iii. Vehículo eléctrico de células de combustible (FCV): Vehículo eléctrico que utiliza exclusivamente energía eléctrica procedente de una pila de combustible de hidrógeno embarcado.

iv. Vehículo eléctrico híbrido de células de combustible (FCHV): Vehículo eléctrico de células de combustible que equipa, además, baterías eléctricas recargables.

b) Para los vehículos pertenecientes a la categoría L se exige:

i. Estar propulsados exclusivamente por motores eléctricos y estar homologados como vehículos eléctricos.

ii. Las motocicletas eléctricas nuevas (categorías L3e, L4e y L5e) han de tener baterías de litio, motor eléctrico con una potencia del motor igual o superior a 3 kW, y una autonomía mínima de 70 km.

3.º) Los vehículos no podrán estar afectos a una actividad económica.

4.º) Deberán estar matriculados por primera vez en España a nombre de la o del contribuyente.

2. La deducción prevista en el apartado anterior será del 10 por 100 del valor de adquisición cuando el o la contribuyente haya procedido al achatarramiento de un vehículo de su

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezarritako baldintzetan.

titularidad en las condiciones previstas reglamentariamente.

3. Kenkari horren oinarria ibilgailuaren eskurapen-balioa izango da, eskurapenari datxezkion gastu eta tributuak barne.

3. La base de esta deducción estará constituida por el valor de adquisición del vehículo, incluidos los gastos y tributos inherentes a la adquisición.

Kenkari horren gehieneko oinarria 10.000 euro izango da L3e, L4e eta L5e motozikleten kasuan, eta 40.000 euro gainerako kasuetan.

La base máxima de esta deducción será de 10.000 euros en el caso de las motocicletas L3e, L4e, L5e y de 40.000 euros en el resto de los casos.

Laguntza publikoen programa baten bidez dirulaguntzak jaso direnean edo jasotzeko daudenean, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudiaren arabera, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioz ateratzen den oinarriari dirulaguntza horien zenbatekoa kenduko zaio.

Cuando se hubieran recibido o se fueran a recibir subvenciones a través de un programa de ayudas públicas que resulten exentas en aplicación de la normativa reguladora de este impuesto, la base que resulte de lo previsto en el párrafo anterior se reducirá en el importe de dichas subvenciones.

Zergadunak apartatu honetan jasotako kenkaria aplikatu ahal izango du aurreko 1. apartatuan aipatutako ibilgailuetako baten erosketa bakar batengatik.

La persona contribuyente podrá aplicar la deducción prevista en este apartado por una única compra de alguno de los vehículos referidos en el apartado 1 anterior.

4. Kenkari horren ondorioetarako, errentamendua eskurapenaren parekotzat joko da baldin eta haren bidez errentatzaileak aurreko 1. apartatuan aipatutako ibilgailuetakoren bat jartzen badu zergadunaren esku, adostutako kuotak aldi jakin batean ordaintzearen truke.

4. A los efectos de esta deducción, se asimilará a la adquisición el arrendamiento por el que el arrendador pone a disposición de la persona contribuyente un vehículo de los mencionados en el apartado 1 anterior a cambio de la satisfacción de las cuotas acordadas durante un periodo de tiempo determinado.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuan,

En el supuesto previsto en el párrafo anterior,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kenkariaren oinarria zergaldian ordaindutako kuota guztiek osatuko dute, betiere aurreko 3. apartatuan ezarritako gehieneko oinarria kontuan hartuta.

5. Aurreko apartatuetan aipatutako ibilgailuak eskuratu ondoren jarduera ekonomiko bati afektatzen bazaizkio, galdu egingo da egindako kenkarirako eskubidea, eta tributu-egoera erregularizatu beharko da afektazio hori gertatzen den ekitaldiari dagokion aitorpenean. Erregularizazioak dagozkion berandutze-interesak ere jaso beharko ditu».

91 sexies artikulua. *Kenkaria ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeagatik.*

1. Zergadunek ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute beren jabetzako finkan edo komunitateko garajean beren jabetzakoak diren eta xede partikularretarako erabiltzen dituzten ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko ordaindutako kopuruetan, baldin eta finka edo garaje horren jabe gisa partaidetza-kuotarik badute.

2. Aurreko 1. apartatuan aipatutako kenkariaren oinarriaren gehieneko muga, zergadun bakoitzeko, 5.000 euro izango da instalazio bakoitzeko, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntua finkan edo garaje komunitarioan instalatzeko lanak amaitu eta instalazioa abian jartzen den zergaldian

la base de deducción estará constituida por el conjunto de las cuotas satisfechas en el periodo impositivo, teniendo en cuenta, en todo caso, la base máxima prevista en el apartado 3 anterior.

5. En caso de que con posterioridad a su adquisición los vehículos a que se refieren los apartados anteriores se afectaran a una actividad económica, se perderá el derecho a la deducción practicada, debiendo proceder a regularizar su situación tributaria en la declaración correspondiente al ejercicio en que tal afectación se produzca. La regularización deberá incluir, asimismo, los intereses de demora correspondientes."

Artículo 91 sexies. *Deducción por instalaciones de puntos de recarga de vehículos eléctricos.*

1. Las y los contribuyentes podrán aplicar una deducción del 15 ciento de las cantidades satisfechas para la instalación, en finca de su propiedad o en garaje comunitario, en el que ostente una cuota de participación en cuanto propietaria o propietario del mismo, de puntos de recarga de vehículos eléctricos de su propiedad y uso para fines particulares.

2. La base de la deducción a que se refiere el apartado 1 anterior tendrá un límite máximo por contribuyente de 5.000 euros por cada instalación y se practicará en el período impositivo en el que se finalice y se ponga en funcionamiento la instalación del punto de recarga de vehículos eléctricos en la finca o en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aplikatuko da.

3. Kenkariaren oinarria osatzen duten kopuruei zergadunak kontzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta zerga honetatik salbuetsita dauden dirulaguntzen zenbatekoa kenduko zaie».

el garaje comunitario.

3. De las cantidades que forman parte de la base de la deducción se restará el importe de las subvenciones exentas de este Impuesto que la o el contribuyente reciba, en su caso, por el referido concepto deducible."

11. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa.*

2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako bakarrik, honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan:

Artículo 11. *Modificación de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades.*

Con vigencia exclusiva para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero de 2025 y hasta el 31 de diciembre de 2035, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral *11*/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades:

Bat. 21. artikuluaren 1. apartatuari g) letra gehitzen zaio; hona testua:

g) Atal honetako b) letran aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, ibilgailu elektriko bateriadun (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektriko (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektriko (EPIE) eta erregai-piladun ibilgailu elektriko hibrido (EPIEH) berrietan egindako inbertsioak, foru-arau honen 13. artikuluan aipatutako mikroenpresek eta enpresa txikiek eginak.

Uno. Se añade una nueva letra g) en el apartado 1 del artículo 21, con el siguiente contenido:

g) Sin perjuicio de lo previsto en la letra b) de este apartado, las inversiones en vehículos nuevos eléctricos de batería (BEV), eléctricos de autonomía extendida (REEV), eléctricos de células de combustible (FCV) y eléctricos híbridos de células de combustible (FCHV) realizadas por las microempresas y las pequeñas empresas a que se refiere el artículo 13 de esta Norma Foral.

Se añaden las letras g) y h) al artículo 11.1, con el siguiente contenido:

«g) Kuotaren ehuneko 50eko hobaria, gehienez, zerga udal kuotaren bidez ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta jarduera ekonomikoarekin lotutako lokal batean ibilgailua elektrikoak birkargatzeko puntua jartzen badute.

"g) Una bonificación de hasta el 50 por ciento de la cuota correspondiente para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que instalen puntos de recarga para vehículos eléctricos en los locales afectos a la actividad económica.

Hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

La bonificación se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras anteriores.

h) Kuotaren ehuneko 50eko hobaria, gehienez, zerga udal kuotaren bidez ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako xedea daukan jarduera ekonomikoa egiten badute.

h) Una bonificación de hasta el 50 por ciento de la cuota correspondiente para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y desarrollen una actividad económica cuyo objeto se encuentre directamente vinculado con la economía circular.

Hori dela eta, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutzat joko da, baldin hondakinak balorizatzea bada.

A estos efectos, se entenderá que el objeto de una actividad económica se encuentra directamente vinculado con la economía circular si la actividad económica tiene por objeto la valorización de residuos.

Hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuz

La bonificación se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.»

se refieren las letras anteriores."

14. artikulua. *Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 10/1989 Foru Arauaren aldaketa.*

Artículo 14. *Modificación de la Norma Foral 10/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.*

Aldaketa hau sartzen da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 10/1989 Foru Arauan:

Se introduce la siguiente modificación en la Norma Foral 10/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras:

4.2 artikuluari f) eta g) letrak gehitzen zaizkio; hona:

Se añaden las letras f) y g) en el artículo 4.2, con el siguiente contenido:

«f) Ehuneko 90eko hobaria, gehienez, ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak ipintzeko egiten diren eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan.

"f) Una bonificación de hasta el 90 por ciento a favor de las construcciones, instalaciones u obras necesarias para la instalación de puntos de recarga para vehículos eléctricos.

Hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

La bonificación se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras anteriores.

g) Ehuneko 50eko hobaria, gehienez, ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako xedea duten jarduera ekonomikoa egiten den eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan.

g) Una bonificación de hasta el 50 por ciento a favor de las construcciones, instalaciones u obras en las que se desarrolle una actividad económica cuyo objeto se encuentre directamente vinculado con la economía circular.

Hori dela eta, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutzat joko da, baldin hondakinak balorizatzea bada.

A estos efectos, se entenderá que el objeto de una actividad económica se encuentra directamente vinculado con la economía circular si la actividad económica tiene por objeto la valorización de residuos.

Hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuz

La bonificación se aplicará a la cuota resultante

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.»

de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras anteriores."

V. KAPITULUA

GEHIKORTASUNA.

CAPÍTULO V

PROGRESIVIDAD.

15. artikulua. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa.*

Artículo 15. *Modificación de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Con efectos desde 1 de enero de 2025, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Bat. Berridazten da 9. artikuluaren 5. zenbakiaren azken paragrafoa; honela idatzita geratzen da:

Uno. Se da nueva redacción al último párrafo del número 5 del artículo 9, que queda redactado en los siguientes términos:

«Zenbaki honetan ezartzen den kalte-ordain salbuetsia 183.600 euro izango da, gehienez.»

"El importe de la indemnización exenta establecida en este número no podrá superar la cantidad de 183.600 euros."

Bi. Berridazten da 23. artikulua; honela idatzita geratzen da:

Dos. Se da nueva redacción al artículo 23, que queda redactado en los siguientes términos:

«23. artikulua. Lanaren etekinaren hobaria.

"Artículo 23. Bonificación del rendimiento del trabajo.

1. Lanaren etekin osoen guztirako zenbatekoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboa bada, hobari hau aplikatuko da:

1. La diferencia positiva entre el conjunto del rendimiento íntegro del trabajo y los gastos deducibles se bonificará en las siguientes cuantías:

a) Diferentzia 14.800 euro edo gutxiago bada,

a) Cuando la diferencia sea igual o inferior a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

8.000 euroko hobaria.

b) Diferentzia 14.800,01 - 23.000 euro artekoa bada, 8.000 euroko hobaria, honako hau kenduta: diferentziatik 14.800,00 euro kendu eta ateratzen den emaitzaren zenbatekoa 0,6098az biderkatzearen emaitza.

c) Diferentzia 23.000 euro baino gehiago bada, 3.000 euroko hobaria.

2. Zerga-oinarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen badira eta errentok 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren hobariak gehitu egingo dira kasu hauetan:

a) Zergaduna aktibo dagoen langile desgaitua bada eta beraren desgaitasun-gradua ehuneko 33 eta 65 bitartekoa bada, hobaria ehuneko 100 gehituko da.

b) Zergaduna aktibo dagoen langile desgaitua bada, eta beraren desgaitasuna ehuneko 33 eta 65 bitartekoa bada eta mugitzeko gaitasuna murriztuta badauka, hobaria ehuneko 250 gehituko da. Halakotzat joko dira Desgaitasunaren gradua aintzatesteko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak Mugikortasun-jardueren Mugak

14.800 euros, se aplicará una bonificación de 8.000 euros.

b) Cuando la diferencia esté comprendida entre 14.800,01 y 23.000 euros, se aplicará una bonificación de 8.000 euros menos el resultado de multiplicar por 0,6098 la cuantía resultante de minorar la citada diferencia en 14.800,00 euros.

c) Cuando la diferencia sea superior a 23.000 euros, se aplicará una bonificación de 3.000 euros.

2. Cuando en la base imponible se computen rentas no procedentes del trabajo cuyo importe exceda de 7.500 euros, la cuantía de la bonificación será de 3.000 euros.

3. Las bonificaciones contempladas en los apartados anteriores se incrementarán:

a) En un 100 por 100 para aquellos trabajadores activos discapacitados con un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100.

b) En un 250 por ciento para aquellas personas trabajadoras activas discapacitadas con un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento e inferior al 65 por ciento que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tal la obtención en el sub-baremo de Limitaciones en las Actividades de Movilidad (BLAM) del Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ebaluatzeko ezarritako azpibaremoaren arabera (MJMEB) mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukaten pertsonak Ehuneko bera aplikatuko zaie ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukaten langile aktibo desgaituei ere.

que se establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, de una limitación final de movilidad igual o superior al 25 por ciento, así como para aquellas personas trabajadoras activas discapacitadas con un grado de discapacidad igual o superior al 65 por ciento.

4. Artikulu honetan arautzen den hobaria aplikatu ondoko lanaren etekin garbia ezin da izan negatiboa.»

4. La aplicación de la bonificación prevista en este artículo no podrá dar lugar a un rendimiento neto del trabajo negativo."

Hiru. Berridazten da 76. artikuluaren 1. apartatua; honela idatzita geratzen da:

Tres. Se da nueva redacción al apartado 1 del artículo 76, que queda redactado en los siguientes términos:

«1. Aurrezkiaren likidazio-oinarriari eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

"1. La base liquidable del ahorro será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aurrezkiaren likidazio-oinarriaren zatia (€)	Karga-tasa (%)
15.000,00 gehienez	20,00
15.000,01 - 30.000,00	22,00
30.000,01 - 60.000,00	23,00
60.000,01 - 120.000,00	25,00
120.000,01 - 240.000,00	26,00
240.000,01 eurotik aurrera	27,00"

Parte de la base liquidable del ahorro (€)	tipo aplicable %.
Hasta 15.000,00	20,00
Desde 15.000,01 hasta 30.000,00	22,00
Desde 30.000,01 hasta 60.000,00	23,00
Desde 60.000,01 hasta 120.000,00	25,00
Desde 120.000,01 hasta 240.000,00	26,00
Desde 240.000,01 en adelante	27,00"

Lau. Berridazten da 102. artikulua; honela idatzita geratzen da:

«102. artikulua. *Aitortu beharra*.

«1. Zergadunek zerga honen aitorpena aurkeztu eta sinatu beharko dute. Mugak eta baldintzak arauz finkatuko dira.

Zergaren aitorpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu behar dira, artikulu honen 6. apartatuan ezartzen denarekin bat etorriz.

2. Hala ere, honako iturri hauetako errentak

Cuatro. Se da nueva redacción al artículo 102, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 102. *Obligación de declarar*.

"1. Las y los contribuyentes estarán obligados a presentar y suscribir declaración por este Impuesto, con los límites y condiciones que reglamentariamente se establezcan.

La presentación de las declaraciones del Impuesto se efectuará a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con lo indicado en el apartado 6 de este artículo.

2. No obstante, no estarán obligados a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute aurkeztu beharko aitorpena:

a) Lanaren etekin gordinak; muga: 19.000 euro urtean, banakako tributazioan. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak lortu dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare-irabaziak (salbuetsiak barne, kasu bietan), urteko guztirako batura 1.600 euro baino gehiago ez bada.

Letra honetan xedatzen dena ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko entitateen akzioen edo partaidetzen eskualdaketek edo itzulketek sortzen dituzten ondare-irabaziei, baldin eta, arauz ezarritakoaren arabera, atxikipen-oinarria ez bada zehaztu behar zerga-oinarrian integratu beharreko zenbatekoa aintzat hartuta.

3. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitorpen-zirriborroetatik abiatuta (foru arau honen 104. artikuluan aipatzen dira zirriborro horiek), zergadunek zirriborroetako datuetatik eragiten dieten guztiak aldatu edota osatu behar dituzte, eta ezarritako edo ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak erantsi beharko dizkiete aitorpenei.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei

presentar declaración las y los contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

a) Rendimientos brutos del trabajo, con el límite de 19.000 euros anuales en tributación individual. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada uno de las y los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

b) Rendimientos brutos del capital y ganancias patrimoniales, incluidos en ambos casos los exentos, que no superen conjuntamente los 1.600 euros anuales.

Lo dispuesto en esta letra no será de aplicación respecto de las ganancias patrimoniales procedentes de transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva en las que la base de retención, conforme a lo que se establezca reglamentariamente, no proceda determinarla por la cuantía a integrar en la base imponible.

3. Partiendo de los borradores de declaración proporcionados por el Departamento de Hacienda y Finanzas, a los que hace referencia el artículo 104 de la presente Norma Foral, las y los contribuyentes deberán modificar y/o completar la totalidad de los datos que les afecten contenidos en los mismos, así como acompañar su declaración de los documentos y justificantes establecidos o que se establezcan.

4. Las personas sucesoras del causante

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

buruzko Foru Arau Orokorraren 38. artikuluaren arabera, kausatzaileak egin gabe uzten dituen zerga honen aitorpenak beraren oinordekoek aurkeztu eta sinatu behar dituzte; kausatzaileari zegozkion zehapenak direla-eta, ordea, ez dute betebeharrik izango.

quedarán obligadas a cumplir las obligaciones de presentar y suscribir las declaraciones pendientes por este Impuesto, con exclusión de las sanciones, de conformidad con el artículo 38 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

5. Zergadunek bizilekua aldatzen badute, horren berri eman beharko diote zerga-administrazioari, aldaketa horrek zerga galdatzeko eskumenean ere aldaketak eraginez gero.

5. Las y los contribuyentes están obligados a comunicar a la Administración tributaria los cambios de residencia que originen modificaciones en la competencia para exigir el Impuesto.

6. Zerga honen aitorpenak aurkezteko, bai eta zuzenketak edo administrazio-bideko errekurtsoak ere, baliabide informatiko, elektroniko edo telematikoak erabili beharko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

6. Las declaraciones por este Impuesto, así como las rectificaciones o los recursos en vía administrativa que procedan, deberán efectuarse utilizando medios informáticos, electrónicos o telemáticos a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Aitorpenak, zuzenketak eta errekurtsoak Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez aurkezteko prozedurak araudian ezarriko dira. Horrez gainera, araudian zehaztuko da zer kasutan emango dien zerga-administrazioak laguntza pertsonala zergadunei zergaren aitorpenak aurkezteko.»

Reglamentariamente se desarrollarán los procedimientos para efectuar dichas declaraciones, rectificaciones y recursos a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, así como los supuestos en los que la Administración tributaria ofrecerá asistencia personal en la presentación de las declaraciones del Impuesto."

Bost. Berridazten da hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 8. apartatua; honela idatzita geratzen da:

Cinco. Se da nueva redacción al apartado 8 de la disposición adicional decimoctava, que queda redactada en los siguientes términos:

«8. Zerga-oinarrian ez dira sartuko xedapen gehigarri honetan zehazten diren sariak, eta haien zenbatekoa ez da kontuan hartuko foru

"8. No se integrarán en la base imponible del Impuesto los premios previstos en esta disposición adicional ni se tendrá en cuenta su

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arau honen 102. artikuluaren 2. apartatuaren b) letran xedatzen diren ondorioetarako. Foru-arau honetan xedatzen denarekin bat etorriz aplikatzen diren atxikipenek edo konturako sarrerek ez dute gutxituko zergaren kuota likido osoa, eta ez dira kontuan hartuko foru arau honen 112. artikuluan xedatzen diren ondorioetarako.»

importe a los efectos previstos en la letra b) del apartado 2 del artículo 102 de esta Norma Foral. Las retenciones o ingresos a cuenta practicados conforme a lo previsto en la misma no minorarán la cuota líquida total del impuesto ni se tendrán en cuenta a efectos de lo previsto en el artículo 112 de esta Norma Foral."

VI. KAPITULUA.

EKOIZPEN-SAREA BABESTEA ETA BULTZATZEA.

16. artikulua. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa.*

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 41.2 artikuluaren c) letraren bigarren betekizuneko lehen paragrafoa aldatzen da eta bi paragrafo gehitzen dira letraren amaieran; honela geratzen dira:

«Bigarrena. Eskualdatzaileak zuzendaritza-lanak egin izan baditu, eskualdaketaren unetik bi urte igarotakoan lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.»

CAPÍTULO VI.

PROTECCIÓN E IMPULSO DEL TEJIDO PRODUCTIVO.

Artículo 16. *Modificación de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

Con efectos desde 1 de enero de 2025, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Uno. Se modifica el primer párrafo del requisito Segundo de la letra c) del artículo 41.2 y se añaden dos párrafos al final de la citada letra, que quedan redactados en los siguientes términos:

"Segundo. Que, si el o la transmitente venía ejerciendo funciones de dirección, deje de ejercer dichas funciones y de percibir remuneraciones por el ejercicio de las mismas en el plazo de dos años desde el momento de la transmisión."

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

«c) Letra honetan ezartzen dena zergaduna titularra, akzioduna edo partaidea den entitate bakoitzaren eskualdaketa bati bakarrik aplikatuko zaio.

Zergadunak c) letra honetan ezartzen diren eskualdaketetako bat eginez gero, eragiketari buruzko datuak adierazi behar ditu aitorpenean.»

Bi. 89.2 artikuluari g) letra gehitzen zaio; hona testua:

«g) Kooperatiben kapital sozialera egiten diren ekarpenak nahitaezkoak izan behar dira Euskadiko kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatzen denaren arabera.»

"Lo previsto en esta letra c) será de aplicación a una única transmisión por cada entidad de la que la persona contribuyente sea titular, accionista o partícipe.

Cuando el o la contribuyente lleve a cabo una transmisión de las previstas en esta letra c), deberá hacer constar en su declaración los datos relativos a la operación."

Dos. Se añade una letra g) al artículo 89.2, con el siguiente contenido:

"g) En el caso de aportaciones al capital social de cooperativas, las aportaciones deberán tener el carácter de obligatorias de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi."

17. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2023 Foru Arauaren aldaketa*.

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2023 Foru Arauan:

Bat. Berridazten da 32. artikuluaren 4. apartatuaren lehen paragrafoa; honela idatzita geratzen da:

«Foru-arau honen 13. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen diren mikroenpresek beren zerga-oinarritik kengarritzat jo ahal

Artículo 17. *Modificación de la Norma Foral 11/2023, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades*.

Con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 11/2023, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades

Uno. Se da nueva redacción al primer párrafo del apartado 4 del artículo 32, que queda redactado en los siguientes términos:

"Las microempresas a que se refiere el apartado 1 del artículo 13 de esta Norma Foral, podrán considerar deducible de su base

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izango dute beren zerga-oinarri positiboaren ehuneko 15 (apartatu honetan ezartzen dena aplikatu aurreko zerga-oinarri positiboa), beren tamainari datxezkion zailtasunen zerga-konpentsazio gisa.

imponible un importe equivalente al 15 por ciento de su base imponible positiva, previa a la aplicación de lo previsto en el presente apartado, en concepto de compensación tributaria por las dificultades inherentes a su dimensión.

Bi. Berridazten da 55. artikuluaren 1. apartatuaren lehen paragrafoa; honela idatzita geratzen da:

Dos. Se da nueva redacción al primer párrafo del apartado 1 del artículo 55, que queda redactado en los siguientes términos:

«1. Likidatu edo autolikidatu diren zerga-oinarri negatiboak hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako errenta positiboekin konpentsatu ahal izango dira, muga honekin: konpentsazioa egin aurreko zerga-oinarri positiboaren 100eko 50. Muga hori ez zaie aplikatuko foru arau honen 13. artikuluan zehazten diren mikroenpresei eta enpresa txikiei.»

"1. Las bases imponibles negativas que hayan sido objeto de liquidación o autoliquidación podrán ser compensadas con las rentas positivas de los períodos impositivos que concluyan en los treinta años sucesivos con el límite del 50 por 100 de la base imponible positiva previa a dicha compensación. Este límite no será de aplicación para las microempresas y pequeñas empresas definidas en el artículo 13 de esta Norma Foral."

Hiru. Berridazten da 56. artikuluaren 2. apartatua; honela idatzita geratzen da:

Tres. Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 56, que queda redactado en los siguientes términos:

«2. Foru arau honen 14. artikuluan aipatzen diren ondare-sozietateei eskala hau aplikatuko zaie:

"2. Para las sociedades patrimoniales a que se refiere el artículo 14 de esta Norma Foral será de aplicación la siguiente escala:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Zerga-oinarria (€)	Karga-tasa
0,00 - 15.000,00	% 20
15.000,01 - 30.000,00	% 22
30.000,01 - 60.000,00	% 23
60.000,01 - 120.000,00	% 25
120.000,01 - 240.000,00	% 26
240.000,01etik gora	% 27»

Lau. Berridazten da 59. artikuluaren 4. apartatua; honela idatzita geratzen da:

«4. Aurreko apartatuan ezartzen diren portzentajeak ehuneko 15, ehuneko 11, ehuneko 13, ehuneko 9,75 eta ehuneko 18,25 izango dira, hurrenez hurren, baldin eta entitatearen plantillan kontratu mugagabea duten laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langileen batez besteko kopurua mantentzen edo gehitzen bada, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (laneratzeko eragozpen bereziko pertsonak foru arau honen 66. artikuluaren 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan zehazten

Base imponible (€)	Tipo de gravamen
De 0,00 a 15.000,00	20%
De 15.000,01 a 30.000,00	22%
De 30.000,01 a 60.000,00	23%
De 60.000,01 a 120.000,00	25%
De 120.000,01 a 240.000,00	26%
De 240.000,01 en adelante	27%"

Cuatro. Se da nueva redacción al apartado 4 del artículo 59, que queda redactado en los siguientes términos:

"4. Los porcentajes establecidos en el apartado anterior serán del 15 por ciento, 11 por ciento, 13 por ciento, 9,75 por ciento y 18,25 por ciento respectivamente si la entidad mantiene o incrementa su promedio de plantilla laboral con carácter indefinido de personas incluidas en los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo, a los que se refiere el tercer párrafo del apartado 1 del artículo 66 de esta Norma Foral, respecto al del ejercicio anterior."

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dira).»

18. artikulua. *Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren aldaketa.*

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauan:

Bat. Berridazten da 10. artikulua; honela idatzita geratzen da:

«10. artikulua. *Etxebizitzen kooperatibak*.

Etxebizitzen kooperatibak babes berezikotzat joko dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Kooperatibaren helburua izan behar da bazkideen esku jartzea etxebizitza merkeak, bai jabetza adjudikatuta, bai erabilera eta gozamena lagata.

Horri dagokionez, etxebizitzak merketzat joko dira baldin eta gehienez 120 metro koadroko azalera badute eta, gainera, haien eraikuntza-kostua (egotzi beharreko lurzoruaren kostua gehituta) ez bada Euskal Autonomia Erkidegoko babes publikoko etxebizitzetarako ezarritako gehieneko prezioa 1,8 koefizienteaz biderkatuz ateratzen den kopurua baino

Artículo 18. *Modificación de la Norma Foral 6/2018, de 12 de diciembre, sobre régimen fiscal de cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia.*

Con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 6/2018, de 12 de diciembre, sobre régimen fiscal de cooperativas del Territorio Histórico de Bizkaia:

Uno. Se da nueva redacción al artículo 10, que queda redactado en los siguientes términos:

"Artículo 10. *Cooperativas de Viviendas*.

Se considerarán especialmente protegidas las Cooperativas de Viviendas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que tengan por objeto procurar a sus socios y socias viviendas de carácter económico, ya sea mediante su adjudicación en propiedad o mediante la cesión de su uso y disfrute.

A estos efectos, tendrán la consideración de viviendas de carácter económico, aquéllas cuya superficie sea igual o inferior a 120 m2 y cuyo coste de construcción, incrementado en el coste del terreno que le resulte imputable, no exceda de la cantidad que resulte de multiplicar el coeficiente 1,8 por los precios máximos establecidos para las viviendas de protección

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gehiago.

Hala ere, etxebizitzok ez diote babespekoak izateari utziko haiekin batera negozioetarako lokalak, zerbitzu osagarriak eta urbanizazio obrak egiten direnean, baldin eta babes publikoko etxebizitzei buruzko legerian ezarritako mugen barruan egiten badira, nahiz eta kooperatibek eraikitako etxebizitzak babes ofizialekoak ez izan.

b) Kooperatibak eraikitzen dituen etxebizitzak bazkideen ohiko etxebizitzatarako baliatu behar dira. Bazkideek horren berri eman behar dute nahitaez etxebizitzaren adjudikazioari edo haren erabileraren eta gozamenaren lagapenari buruzko dokumentuan. Hala ere, bazkideak ez diren hirugarrenei besterendu ahal izango dizkiete sustatutako etxebizitzak, baldin eta hori beharrezkoa bada kooperatiba-sustapena finantzatzeko, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 117. artikuluaren 2. apartatuan arautzen den bezala.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 87.8 artikuluan zehazten duena.

c) Bazkideei etxebizitza jabetzan ematea helburutzat duten etxebizitzen kooperatiben kasuan, kooperatiba ezin da desegin eraikitako etxebizitzak adjudikatzen edo eskualdatzen

pública en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

No obstante, no perderán la condición de protegidas cuando construyan, asimismo, locales de negocio, servicios complementarios y obras de urbanización dentro de los límites autorizados por la legislación de viviendas de protección pública, aunque no tengan esta condición las construidas por las Cooperativas.

b) Que las viviendas que constituyen su objeto tengan la finalidad de servir de vivienda habitual de los socios y socias de las mismas, los cuales deberán manifestar dicha circunstancia en el documento en que se plasme la adjudicación de la propiedad o la cesión del uso y disfrute. No obstante, podrán enajenar las viviendas promovidas a terceras personas no socias cuando ello sea necesario para la financiación de la promoción cooperativa, en las condiciones previstas en el apartado 2 del artículo 117 de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi.

A estos efectos, se entenderá por vivienda habitual la definida como tal en el artículo 87.8 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

c) Que, en el caso de cooperativas de viviendas cuyo objeto fuera procurar a sus personas socias viviendas en propiedad, la disolución de la Cooperativa no tenga lugar durante los cinco

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

diren egunetik bost urte igaro baino lehen, salbu eta epealdi luzeagoa ezartzen badute berme-aldiak eta entitate sustatzaile gisa akats ezkutatuei erantzuteko aurreikusitako legezko epealdiak, zeinak adjudikazioaren edo eskualdatzearen egunetik aurrera zenbatu behar baitira, edo erakunde publikoekin sinatutako estatutuek edo lankidetza-hitzarmenek.

d) Kooperatibaren estatutuetan beren-beregi adierazi behar da ezen etxebizitzaren jabetza adjudikatzen zaien bazkideek edo haren erabilera eta gozamena lagatzen zaizkien bazkide guztiek bete egin behar dituztela zergen legerian ohiko etxebizitzatzat jotzeko ezarritako baldintzak, eta beren-beregi ezarri behar da ezen betebehar hori betetzen ez duten bazkideek kalte-ordaina eman beharko diotela kooperatibari, etxebizitzaren balioaren 100eko 10 gutxienez.

e) Bazkideei etxebizitza baten erabilera eta gozamena lagatzea helburutzat duten etxebizitzen kooperatiben kasuan, kooperatibak ezin die eman bazkideei ostalaritzako berezko zerbitzu osagarririk (jatetxe-zerbitzua, garbiketa, arropa-ikuzketa...), ez eta gizarte-arretako laguntzarik ez osasun-zerbitzurik ere.

años siguientes a la fecha de la adjudicación o transmisión de las viviendas construidas, salvo que el plazo de garantía y el legal previsto para responder de los vicios ocultos como entidad promotora, a contar desde la fecha de dicha adjudicación o transmisión, o los estatutos o convenios de colaboración suscritos con entidades públicas, establezcan un plazo superior, en cuyo caso se estará a estos últimos plazos.

d) Que los Estatutos de la Cooperativa dispongan, de forma expresa, que la persona socia adjudicataria de la propiedad o cesionaria del uso y disfrute de una vivienda asuma la obligación de cumplir los requisitos que la legislación fiscal establezca para calificarla de vivienda habitual, señalándose expresamente que el incumplimiento por parte de la persona socia de dicha obligación determinará la obligación de abonar a la Cooperativa una indemnización no inferior al 10 por 100 del valor de la vivienda.

e) Que, en el caso de cooperativas de viviendas cuyo objeto fuera procurar a sus personas socias el uso y disfrute de viviendas mediante su cesión, la cooperativa no preste a la persona socia servicios complementarios propios de la industria hotelera, tales como los de restaurante, limpieza, lavado de ropa u otros análogos, o servicios de asistencia social o sanitarios.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Babes bereziko kooperatibatzat jotzeko funtsezko baldintza (etxebizitza ohiko bizilekua izatea) betetzen denez egiaztatzeko eskubidearen preskripzio-epealdia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 87.8 artikuluan aipatzen den hiru urteko aldia amaitutakoan hasiko da zenbatzen.»

2. El plazo de prescripción del derecho a comprobar el requisito, determinante para la calificación de cooperativa especialmente protegida, relativo al destino de la vivienda como residencia habitual de las personas socias, comenzará a contarse a partir de la finalización de los tres años a los que se refiere el artículo 87.8 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas."

Bi. Berridazten da 53. artikuluaren 2. apartatua; honela idatzita geratzen da:

Dos. Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 53, que queda redactado en los siguientes términos:

«2. Sozietateen gaineko zergan, herri onurako kooperatibei eta ekimen sozialeko kooperatibei aplikatzeko moduko zerga-araubidea irabazi-asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren 7.-17. bitarteko artikuluetan ezarritakoa izango da.

«2. En el Impuesto sobre Sociedades el régimen tributario aplicable a las Cooperativas de Utilidad Pública y a las Cooperativas de Iniciativa Social será el establecido en los artículos 7 a 17 de la Norma Foral 4/2019, de 20 de marzo, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo.

Halaber, pertsona fisikoek eta juridikoek egiten dituzten dohaintzei eta ekarpenei eta Herri Onurako Kooperatiben eta Gizarte Ekimeneko Kooperatiben alde egiten diren enpresa-arloko lankidetzako hitzarmenei foru arau honen III. tituluaren II. kapituluaren artikuluak eta, gainera, 28. artikulua aplikatuko zaizkie.»

Asimismo, a los donativos y aportaciones efectuadas por personas físicas y jurídicas o a los convenios de colaboración empresarial realizados a favor de las Cooperativas de Utilidad Pública y a las Cooperativas de Iniciativa Social les serán de aplicación los artículos procedentes del Capítulo II del Título III y el artículo 28 de dicha Norma Foral."

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

19. artikulua. *Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren aldaketa.*

Aldaketa hau egiten da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauan:

Berridazten da 43.4 artikuluaren b) letra; honela idatzita geratzen da:

«b) Dohaintza-emaileak zuzendaritza-lanak egin izan baditu, eskualdaketaren unetik bi urte igarotakoan lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.»

Artículo 19. *Modificación de la Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.*

Se introduce la siguiente modificación en la Norma Foral 4/2015, de 25 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones:

Se da nueva redacción a la letra b) del artículo 43.4 que queda redactada en los siguientes términos:

"b) Que, si la persona donante viniere ejerciendo funciones de dirección, dejara de ejercer y de percibir remuneraciones por el ejercicio de dichas funciones en el plazo de dos años desde la transmisión."

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauak indargabetzea.*

Foru-arau honetan xedatzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko mailako xedapen guztiak indargabetzen dira.

Disposición derogatoria única. *Derogación normativa.*

Se derogan todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan o contradigan lo dispuesto en la presente Norma Foral.

Azken xedapenetako lehena. *Arauak emateko gaikuntza.*

Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Sailaren titularrari baimena ematen zaie foru-arau honetan xedatzen dena aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Disposición final primera. *Habilitación normativa.*

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia y a la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para la aplicación de lo dispuesto en la presente Norma Foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean sartzea.*

Foru-arau hau *Bizkaiko Aldizkari Ofizial*ean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta beraren artikuluetan adierazten diren ondorioak sortuko ditu.

Hala ere:

- 3. artikuluaren bigarren apartatuan xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratzen diren ohiko etxebizitzetarako sortuko ditu ondorioak,

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 86. artikuluaren 9. apartatu berrian (3. artikuluaren laugarren apartatua) xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sinatzen edo luzatzen diren errentamendu-kontratuetarako sortuko ditu ondorioak.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 87. artikuluaren 10. apartatu berrian (3. artikuluaren bosgarren apartatua) xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren ohiko etxebizitzaren eskuratzeetarako eta 87. artikuluko 5. atalean aurreikusitako antzeko kasuetarako sortuko ditu

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia" con los efectos indicados en su articulado.

No obstante lo previsto en el párrafo anterior:

- Lo dispuesto en el apartado Dos del artículo 3 tendrá efectos para las viviendas habituales adquiridas a partir de 1 de enero de 2026.

- Lo dispuesto en el nuevo apartado 9 del artículo 86 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, contenido en el apartado Cuatro del artículo 3, tendrá efectos para contratos de arrendamientos que se suscriban o prorroguen a partir de 1 de enero de 2026.

- Lo dispuesto en el nuevo apartado 10 del artículo 87 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, contenido en el apartado Cinco del artículo 3 tendrá efectos para las adquisiciones de vivienda habitual y supuestos asimilados previstos en el apartado 5 del citado artículo 87 que se realicen a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ondorioak.

- Bat, Bi, Hiru, Lau, Bost, Sei, Zazpi eta Hamar apartatuetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren berrogeita bigarren xedapen gehigarrian, zeina Hamaikagarren apartatuaren bidez gehitu baita, eta Hamabi apartatuan (apartatu horiek guztiak foru-arau honen 8. artikuluaren barruan daude) xedatutakoak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

partir de 1 de enero de 2026.

- Lo dispuesto en los apartados Uno, Dos, Tres, Cuatro, Cinco, Seis, Siete, Diez, disposición adicional cuadragésima segunda de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas añadida por el apartado Once, y en el apartado Doce contenidos en el artículo 8, tendrá efectos a partir de 1 de enero de 2026.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43YY-3L1T-UKWP-XHI1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus